



ARGIA

UKRAINAKO GERRAK 2 URTE

*Saihestu zitekeen,
baina ez dute nahi izan*

28-33. orrialdeak

**Tarajalgo sarraskiaz
geroztik, ahazturiko
dramak mugetan**

14 | MIGRAZIOA

**Bitartasuna
zalantzan jarri, noka
berreskuratzeko**

34 | HITANOA

LARRUN #293

**Iñaki Artola
eta Jokin Altuna**

Jarioka

Asmatu hitz ezkutua... Kontuz hitz debekatuekin!



Zure taldeak hitz hau asmatu behar du...

Abantaila	Garantia	Suziria	Taberna
<ul style="list-style-type: none"> Onura Hobaria Probetxua Lehenengoa Etekina Aurrena 	<ul style="list-style-type: none"> Bermea Ziurtatu Abala Etxea Erosketa Hipoteka 	<ul style="list-style-type: none"> Jaia Espazioa Kea Lehertu Piroteknia Festa 	<ul style="list-style-type: none"> Jatetxea Edaria Pintxoa Topalekua Ostatua Benta

... baina ezin dituzu hitz hauek erabili



Eta kontuz, denbora mugatua duzu!

Trebezia komunikatiboa, azkartasuna eta ezagutza bultzatzen dituen mahai-jokoa.

+4 lagun

1.200 hitz baino gehiago asmatzeko

323 karta (18 komodin)



Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DIMITAR DILKOFF / AFP GETTY IMAGES**

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

Iritziak

- 23 | MIKEL ZURBANO
- 24 | BEA SALABERRI
- 25 | IÑIGO MARTINEZ
- 25 | EVA PEREZ-PONS
- 26 | IÑAKI MURUA

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



BUDD / EDUARDCHILLIDA.COM

44 | **CHILLIDAREN GAZTARO "FALANGISTA ULTRA ETA ERRADIKALA"-Z**

Eduardo Chillida eskultorea jaio zeneko mendeurrena bete den honetan, bada hedabideetako erreportaje berezietan kontatzen ez den alde bat: faxismoarekin izandako lotura. Hedoi Etxartek jaso du artikulu honetan.

Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | NET HURBIL

Tarajalgo sarraskitik 10 urtera genozidio isila atlantikoko mugan

Urko Apaolaza

18 | PERTSONAIA | MIKEL GALAR

"Kontuz ibili behar dugu datuak ematerakoan, baina paranoiko bihurtu gabe"

Reyes Ilintxeta

28 | UKRAINAKO GERRAK BI URTE

Errusiaren eta NATOn arteko gerra Ukrainaren lepotik

Asier Blas

34 | EUSKARA

Hitanoak generoan eragiten dituen zapalkuntzak, gogoetagai

Gorka Peñagarikano

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: S5 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


 KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



 software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.


 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Ertzaintza formateatu

Argazkia orain dela 40 edo 20 urtekoa izan zitekeen, baina gaurkoa da, Tolosakoa. Urteak joan, urteak etorri, badira aldatzen ez diren gauzak. Eta gurean, horren erakusle da Polizia. Edozein lanbidetan langile baten akatsaren ondorioz pertsona bati kalte larria eraginez gero, mekanismo guztiak martxan jartzen dira biktima babestu eta erreparatzeko. Baina Ertzaintzan ez. Arazoen aurrean, lehenik armadilloen antzera gotortu egiten da, hermetismoa gailentzen da eta haiek sortutako arazoa haien artean "konponduko" dutela sinistu behar herritarrok. Ondoren, arduradunen justifikazioak datoz: Erne, Esan eta gainerako sindikatu hooligan biolentoen mezuak: "jardun profesionala", "ondo egina". Eta borobiltzeko, babes politikoa, Jaurlaritzaren "ikerketa irekiko dugu" klasikoaren bitartez, ondoren "froga ezagatik" ezerezean geratzen diren prozesu zurizaille-anestesikoak abiatzeko. Polizia indarkeria da berez, definizioz, baina gurean, biolentzia eragiteaz gain, gustatu egiten zaiela dirudi. Aldatzeko garaia da, bai, baina agian, aldaketa baino, reset-a behar dugu.



Zi
ALA
TU

Ertzaintzaren kargak begian larri zauritu du Villabonako gazte bat

ERREDAKZIOA

16 urteko gazte billabonatar batek zauri larriak izan ditu begiaren inguruan, Ertzaintzak Tolosan otsailaren 11 gauean kargatu ostean. Tolosaldeko Atariak hurrengo egunean informatu zuenez, pilotakada bat eman zioten. Hainbat liskar izan ziren Tolosako Inauterietan. Horietako batean Ertzaintzak istiluen kontrako materiala erabili zuen, eta gazte bat larri zauritu.

Astean zehar, hainbat mobilizazio eta agerraldi izan dira, gertaturikoa salatzen. Villabonako Berdura plaza bete zuten herritarrek otsailaren 13 iluntzean, gaztearen aitak azaldu zituen semeak begian dituen lesio larriak eta Ertzaintzaren jokabidearekiko haserrea plazaratu zuen. "12-15 puntu ditu betazalean eta bekainean, erretina mugituta dauka alde batera eta jasotako jaurtikariaren kolpeak eragin dio begi barrenean dagoen malko-hodia puskatu egin diotela eta hori ez da erabat berreskuratuko. Ebakuntzatik ateratzean ikusiko da ea zer ondorio izan ditzakeen ikusmenean", baina ikusmenaren zati bat galduko duela ziurra da.

Ondoren adierazpen hauek egin zituen, gertatutakoa salatuz: "Nahikoa da. Herriko festa batzuetan, jendea jai giroan ospatzen ari denean, uniformedun batzuk sartzen dira eta kargatu egiten dute. Ikusi da horrek zer ondorio izan ditzakeen. Nire haserrea adierazi nahi dut, behingoz istorio hau amaitu dadin". Mahai gainera atera zituen Ertzaintzak jaurtikitzen dituen foam objektuak: "Hauek dira Ertzaintzak Tolosan erabili zituen jaurtikariak. Horietako bat da nire semeari begian jo ziona. Ez da bidezkoa. Hamasei urte ditu. Beste erreminta batzuk badituzte aktuazioak egiteko. Bada garaia gauzak aldatzeko, eta asko gainera".

Gazteari "herri oso baten animoa, maitasuna eta babesa" adierazi zizkion plazan bildutakoekin izenean hitza hartu duen villabonarrak. Ertzaintzaren "indarkeria neurrigabea" salatu zuen: "Entzun dugun aitzakia bakarra, liskar bati



"Herri honek ondotxo daki zer den Ertzaintzaren biolentzia jasatea. Garaia da aski dela, nahikoa dela esateko"

amaiera eman nahi ziotela izan da. Herri honek ondotxo daki zer den Ertzaintzaren biolentzia jasatea. Garaia da aski dela, nahikoa dela esateko. Nazkatuta gaude. Ez dute eskubiderik erabiltzen dituzten metodoekin guztion bizitzak arriskuan jartzeko". Eta eskaera zehatz hau egin die arduradunei: "Lehenbailehen azalpen publiko argiak ematea. Kargaren agindua emateko ardura nork

izan zuen argitu eta neurriak hartzea".

Handik egun batzuetara ere, mobilizazio jendetsua egin zuten.

ERKOREKAREN ERANTZUNA

Gaiaren harira, adierazpenak egin zituen Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburu Josu Erkorekak: "Hasiera-hasieratik Ertzaintza bera izan da istilu horien berri eman duena, gardentasun osoz, mundu guztiaren aurrean, astelehen goizean bertan, beste inoren salaketen esku utzi gabe. Ertzaintza bera izan da ikertzeari ekin diona, hasierako diligentziak ireki dituen, eta aurrera doa ikerketa".

ELA-Ertzaintzak, ohar baten bidez, elkartasuna adierazi zion Tolosan zauritutakoari eta lehenbailehen osatzea espero duela adierazi zuen. Horrekin batera, Segurtasun Sailari eskatu dio argitu dezatela kasua, eta neurriak hartzeaz gain gertatutakoa ahalik eta azkarren ebazteko. Horrelako kasuak berriro gerta ez daitezten. ●

MATERIALISMO HISTERIKOA

Biharamunik ez



UXUE APAOLAZA LARREA

Matutek twitterren idatzi zuen Galiziako hauteskunde kanpainan Feijóok egindako adierazpen batzuen harira: "jende honek ezin du irabazi". Eta irabazi dute. BNG igo da asko, diote denek. TVEn esan dute alderdi nazionalistek ez dutela zertan txarrak izan (espainiarra ez diren nazionalismoez ari ziren). Batekoen eta bestekoen manerak azpimarratu dituzte. Ea estatu osora zabaltzen diren Galiziako bozetako manerak. Galizian ez dago biharamunik, beraz.

Ezkerreko nazionalismoan, beraz, azkenean, diote, manerei eusten dien hautagai bat. Gurean ere, berdin. Ez dakit manerak bakarrik diren. Otxandianoren aurkezpen festan, hautagaiaren, hautagaitzaren politika egiteko modua bakarra, lehenengoan ezagutzekoa nahi zutela esan zuten, zer bezala? *Channellen* jantzien pare. Ni naiz Otxandianoren edozein hitzartze gehien gozatuko duena, gustatzen zaizkit mendeko perpausak dituzten eztabaidak: txantxak txantxa ("edukiko ditu benetako dioptriak betaurrekoak justifikatzeko, ez?"), arantzak arantza (gizon cis heteronormala), gozatuko dut. Gozatuko nuke buruz burukoan mailako norbait balu. Nor du? Pradales: hemen emotikono bat beharko nuke. Ez dut antzematen estrategia zein den, hauteskundeak galtzea zertan den komenigarria EAJrentzat.

Politikariak, pentsatzen dut gure arabera aukeratzan dituztela, guk botatuko dugula uste dutena jartzen dutela. Nire asmoa dena nazionalizatzea balitz, hain zuzen, kontrako itxurako norbait jarri beharko nuke oraintxe, zerga progresiboek (eta herentziaren gaineko zergak bereziki) beldurtu egiten duten gizarte batean. Manera onekoa, eta *Channellekin* konparagarria den norbait jarriko nuke, ni bezalakoan zaletasuna elikatuko duena. Baina boto emale kopuru hori ez da masara iristen. Ezingo nuke nazionalizatu irabazita ere. Eta masa ez delako, izango da paktua. Eta izango da paktua, ezin delako besterik izan, demokratikoki. Manera onekoa ez, gorria denean, independentzia denean... hasiko dira, berriro, manera txarrak. Ez alde honetatik. Momentuz, dena izango da gaur, dena izango da gipuzkoar klase ertain.

Ez da egongo biharamunik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Sexu erasoak

Ehunka herritar Azpeitiko plazan elkartu ziren, inauterietan jazotako bi sexu eraso salatzeke. Bortxaketaren eta beste sexu erasoaren berri izan ostean, bertan behera geratu ziren jaiak. Gizonezko bat atxilotu zuten, ustez bi sexu erasoaren egile delakoan.

Euskarafobia

Helegitea jarri diote 119 administrari-plaza egonkortzeari, hizkuntza eskakizuna dutelako. Gipuzkoako Foru Aldundiko behin-behineko 119 langileak egonkortzeko egin den bidea bertan behera gelditu daitekeela ohartarazi dute LABek eta ELAK.

Feminismoa

Bizi baldintzen eta pribatizazioaren gogortzea izan dira Talaia Feministaren 2023ko ondorio nagusiak. Ezkerreko 170 emakume feminista subiranista elkartu dira, 2023ko sei gertakari aztertu eta Talaia Feministaren behin betiko txostena adosteko.

EKONOMIA

Erreforma fiskala, oraingoz ezta ere



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Atera berri dituzte zerga bilketaren datuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru ogasunek, eta ikusi dugu inoiz baino diru gehiago jaso dutela. Berehala iragarri dute erreforma fiskalari buruzko gogoetarako beharrezko tartea hartuko dutela, ez dagoelako presarik, ezta premia berezirik ere. Beraz kito, fiskalitetearen eztabaida agenda politikotik kanpo geratu da, eta ez du ematen mugimendu sozialetan erabaki hori aldatzeko gaitasunik dagoenik.

“Inoizko bilketarik handienak” benetako erreforma batentzako premia inoiz baino ageriago uzten du ordea. Zenbat jaso den baino, nola eta nondik jaso den aztertuz gero, ikus liteke bidezkoa ez den politika fiskalarekin benetan injustua den zerga bilketa egin dela berriz ere. Soldatak eta kontsumo dira bilketaren ardatzak, 10 eurotik 7 jaso dira horrela. Ez da berria, baina azpimarratzeko modukoa da BEZ zerga jaitsi egin dutela hainbat produktutan, eta sortutako aberastasunean lanerentetara bideratzen dena murrizten ari dela urtez urte: Hego Euskal Herrian %45 inguruan dago. Beraz geroz eta diru gehiago biltzen da, geroz eta baliabide ekonomiko gutxiago dutenen kontura, eta pertsona guztiak berdintzen dituen zergari esker.

Ogia edo esnea erosterakoan, zerga berdina ordaintzen dute Josu Jon Imazek eta 1.200 eurotako pentsioa lortzetik urrun dagoen alargunak. Gehiago langileek enpresa jabeek baino. Eta aztertzea litzateke ea soldaten zergapetzean soldata altuen ekarpena soldata baxuena baina handiagoa ote den. Baina, zertarako egin aldaketarik dirutza biltzeko balio duen sistema fiskala edukita? Petronor eta bere mehatxuak garaile irten dira zerga politikaren erabakietan. Honetan ere, berririk ez. ●

ANALISIA



FREPIK

Ikasgelako gurasoen whatsapp

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Ohar interesgarria bezain kezkarria bidali digu semearen eskolako guraso elkarteak, gelako gurasoen whatsapp taldeen inguruan. Interesgarria, talde horiek zein funtzio duten gogoratzeko baliagarria delako, eta kezkarria, hainbat erabilera oker orokortuta daudela edo gutxienez nahi baino gehiagotan errepikatzen direla bistaraten duelako. “Ez zaitetz zure seme-alabaren agenda bihurtu. Bere ardura da”, dio oharrak, ikasleek eskolarako zer ikasi eta egin behar duten zehazteko gunea direlako maiz talde hauek.

Ikasleen edo ikasle eta irakasleen arteko harremanean arazoak baldin badaude, guraso taldean horretaz eztabaidatzea ez da ideia ona, nabarmentzen du oharrak; ikuspegi bat puzteko, gatazka elikatze/ gaitzotzeko eta pertsona jakin batzuk seinalatzeko (etiketa zintzilikatzeko) arriskua egon daiteke. “Zure seme-alabak beste ikasle batekin arazoak baldin baditu, lehenik eta behin, tutorearekin hitz egin. Irakasle edo eskolako langile ez dozenterekin batekin arazoren bat baldin baduzu, jarri harremanetan ikastetxearekin”.

Whatsappa da “talde guztirako erabilgarri eta interesgarri den informazioa elkarbanatzeko soilik”, eta txutxu-mutxuak mozteko eta errespetuz jarduteko ere badio: “Aurpegira esango ez zenukeenik, ez idatzi”.

Zentzuzko pautak iruditu zaizkigu etxean, eta hizkuntzaren kudeaketak taldeotan sarri egoera deserosoak eragiten dituenek, agian ez legoke gaizki eskoletatik hori ere jorratzea: D ereduko ikasleen gurasook, whatsapp taldean, hizkuntzaren ikuspegitik zein irizpide nagusi jarraitu beharko genituzkeen adieraztea, euskaraz idatzi duen ama-aitari guraso elebakarrak kargu hartzen dionean heldulekuak izan ditzan. Izan ere, ikastetxeko komunikaziorako hizkuntza ardatza euskara izanik (ez bakarrik ikasgai orduetan eta irakasle-ikasle harremanean), guraso taldean ere euskarak izan behar luke ardatz eta lehenasun.

Aldiz, “Eskolako gurasoen whatsapp taldeetan, belarriprest gutxi” artikulua idatzi nuen ARGIAN, halako whatsapp taldeetan maiz gertatzen baita euskaraz idatzi eta baten batek erantzutea “*en castellano, por favor*”. Ezagututako hiru kasuren berri ematen nuen. Batean, gaztelaniaz egiteko eskatu eta guraso euskaldunak halaxe erantzun zion: “*Os pido que la próxima vez que recibáis mensajes en euskara hagáis un esfuerzo por entenderlos y pidáis ayuda a vuestras hijas, para de esta manera no limitar a nadie y que cada uno podamos comunicarnos en el idioma que escojamos*”. Alegia, aukeratutako hizkuntzan aritzen da guraso bakoitza. Bigarren kasua: ikastola bateko gurasoek erabaki zuten bi whatsapp talde sortzea, bata euskara hutsean, eta bestea bi etelan; guraso taldeko ordezkaria bi taldeetan dago, eta hark du ardura ikastetxeko kontuekin zerikusia duen informazioa batean eta bestean zabaltzeko. Eta hirugarren errealitatea, eta esango nuke orokortuena: guraso elebakarrak erdaraz mintzo dira eta gainerako guztiek (sarri gehiengo zabala) bi hizkuntzatan idazten dute mezu bakoitza. Enpatiaren eta bakearen izenean amore ematera eta estres linguistikora ohituegi gaude euskaldunok. ●

Aldaketarako aukera aise zanpatu du Galiziako PPK

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

2009az geroztik, gehiengo osoarekin gobernatzen ari da PP -38 eserleku baino gehiago-, eta horrela jarraituko du gutxienez beste lau urtez. BNGk inoizko emaitzarik onenak lortu ditu, baina ezkerreko blokea gobernatzetik urrun geratu da, PSOEek jaitsiera handia jasan duelako. Zigorra Podemosek eta Sumarrek ere; ez bata ez besteak ez du, beste behin, ordezkartzarik izango. Inoizko parte-hartzerik handiena izan da Galiziako parlamenturako hauteskundeetan historian: %67,3.

Alberto Núñez Feijóoren agintaldi opa-roak segida izango du Alfonso Ruedarekin. 2009ko hauteskundeetan ostean hartu zuen atzera ere agintea PPK, 2005eko hauteskundeetan gehiengoa edukitzetik ordezkari batera geratu eta PSOEek eta BNGk, bigarren eta hirugarren indarrek, gobernu eratu eta gobernatu ondoren.

Lau urteko oposizioaldiaren ondoren, Manuel Fraga Iribarne baztertu eta Núñez Feijóo jarri zuten buru. Eta 2009ko hauteskundeetan, ozta-ozta, baina gehiengo osoa eskuratu zuen PPK: 38 aulki. 2012an, 2016an eta 2020an, berriz, 41 eta 42 eserleku eskuratu zituen. Iazko urtean, PPren Espainiako lidergoa hartu zuen Feijóok, eta presidenteorde Ruedak hartu zuen presidentetza eta aginte makila.

Arrazoi bategatik edo besteagatik gainbeheratxoa aurreikusten zioten hainbat inkestek, baina ez da azkenean hainbestearainokoa izan: 40 eserleku lortu ditu PPren Ruedak eta, beraz, gehiengo osoarekin gobernatuko du. Era berean, Feijóoren aroan baino boto gehiago eskuratu ditu Ruedak, parte hartze altuaren poderioz.

ALDAKETARAKO AUKERA, BAZTERTUTA

BNGk eta Ana Pontón hautagaiak badiutze motiboak pozik egoteko, Galiziako nazionalismoaren blokeak inoizko emaitzarik onenak lortu dituelako bertako parlamenturako hauteskundeetan. PPren alternatiba direla sendo defendatu du Pontónek kanpainan, baina boto mugit



Alfonso Rueda PPKo presidentegaia, kanpainako ekitaldi batean.

PPk bosgarrenez segidan gehiengo osoa eskuratu du

mendua aldetarako balizko gobernu horretako alderdien artean gauzatu da; bost eserleku galdu ditu PSOEek -14tik 9ra-, eta sei irabazi ditu BNGk -19tik 25era-. Bien arteko baturak 34 aulki ematen ditu; 38koa osatetik urrun.

YOLANDA DÍAZ, ETXEAN

Literalki, Madrildik jarraitu ditu bere sorterriko eta politikagintzako lehen urratsak egin zituen lurraldeko hauteskundeak Yolanda Díaz Sumarren sortzaile eta liderrak. Emaitza oso kaskarrak izan ditu, hainbeste konfrontazioen ondotik -Pablo Iglesiasek, esaterako, BNGri botoa emateko deia egin zuen bere foroetan-.

Sumarrek botoen %1,89a baino ez du eskuratu -28.000 boto osotara-, eta Podemosen, berriz, %0,26a -4.000 boto ere ez-. PACMAk, esaterako, Podemosen baino boto gehiago lortu ditu -botoen %0,36 eta, kopurutan, Podemosen baino 1.500 gehiago-.

Emaitzak jakin berritan, txio baten bidez komunikatu da Díaz: "Emaitzak txarrak izan dira" eta "Galizia hobetzeko lanean jarraituko dugu" esan du.

OURENSEKO BERRITASUNA

Gobernu osatu ahal izateko behar baino bi eserleku gehiago ditu PPK, baina baten faltan geratuz gero, beste lagun bat izango zuen ganberan; izan ere, Democrazia Ourensanak aulki bat izango du parlamentuan.

DO soilik Ourense aurkezten den alderdi bat da, eta probintzia hori hobetzeko mekanismoak eskatzen ditu, oro har, despopulazioari aurre egiteko; besteak beste, inbertsioak eskatu ohi dizkio Galiziako Xuntari. Azken urteetan gora egin duen mugimendua da; Ourense hiriko alkatetza lortu zuen azken hauteskundeetan.

Bestalde, botoa eman zezaketen artean, hirutik bik baino gehiagok eman dute botoa: %67 pasatxo. Galiziako parlamentuen historian inoizko parte-hartzerik handiena da. Esaterako, 2009an, PSOE-BNGtik atzera ere PPra gobernu aldaketa gauzatu zenean, %65ekoa izan zen parte-hartzea. ●

TEKNOLOGIA

Errealitatea irudikatzen



DIANA FRANCO

Behin, sexu hezkuntzan aditu den bati entzun nion dena errealitatea dela. Beste batean, fisikari batek esan zidan pentsamendu batek kosmosean eraldaketak sortzen dituela. Zutabe hau teknologiaran inguruan ezagutzen ditudan berriez pentsatzeko tartea bilakatu da niretzat, beharbada, fisikariak zioen bezala, pentsatze hutsarekin zerbait eragiteko aukera. Pentsatze honetan, beti ez noa garaieen erritmorra, baina, aste honetan Soraren inguruan izan dugun berria hain izan da iradokitzailea, ezen horretan pentsatzen hasi naiz. Sora da testuak irudi bilakatu ditzakeen OpenIA enpresak sorturiko adimen artifiziala. Badirudi sortu ditzakeen sorkuntzak gizakiok sortu ditzakegunaren parekoak direla. Bere webgunean zenbait bideo ikus ditzakegu egin dituzten esperimentu batzuekin.

Teknologia horrekin eman daitezkeen zenbait aldaketa jada irudikatzeke gai gara: ikus-entzunezko zenbait sortzailek esplorazio aukera berriak aurkituko dituzte, zenbait pertsonak horrelako adimen artifizialek sortutako mundu murgiltzaileen besoetara bideratuko dute euren bizitza, ezagutza berenganatzeko aukera zabalduko da hainbaitentzat... Ziur horrelako adimen artifizial bat izanda datorren errealitatea irudikatzeke ideiak ez direla faltako zenbaitentzat. Gauza da, horrelako sistemek oinarrian dituzten teknologiak eta dinamikak sortu dezaketen errealitateak muga handiak dituela: teknologia hauek gorputzak paralizatzeko joera dute, arreta errealitate digital horrek eskaini diezazukeen gailuan edo txertoan jartzen delako, eta gorputzen arteko harreman fisikoak eteten dira, harreman guztiak kognitiboak bilakutzen dira, naturarekiko harremana guztiz erauzlea bilakutzen da, natura eta errealitate berrien artean geruza gehiago sortuz, gure ekintzen ondorioetatik aldenduz.

Zorionez, errealitatea irudikatzea denon esku dago, horregatik bada oraindik filmak modu analogikoan sortzen dituenik, eskuz idazten duenik, haurrei ipun bat taldean kontatzen dionik, lagunekin mahai-jokoan gozatzen duenik. Errealitate anitzak irudikatzeke gaitasuna ez dezagun galdu. ●

NAZIOARTEA



Armetako Estatu Batuak

AXIER LOPEZ

Indarkeriak beti indarkeria gehiago sortzen du. Pernandoren egia da hori, baina esaldian subjektuak falta dira. Zein da indarkeria sortzen duena, zeinek jaso eta areago, zeinek sustatzen du.

Ameriketako Estatu Batuak gaur gaurko munduko lehen potentzia dira, arrazoi bakarrarengatik: indarkeria. Ekonomiaren eta geopolitikaren arloetan beharrezko joera argiek hegemonia hori ezbaian jarri dute azken urteotan, baina munduko sheriff-a izaten jarraitzen dute biolentzia eragiteko gaitasunagatik. Munduko aurrekonturik handiena bideratzen dute -izena erabateko eufemismoa den- "Defentsa" sailera. 2024an 886.000 milioi dolar. Munduko herrialde guztien gastu militarra batuko bagenu, AEBena ia %40 litzateke, Stockholmeko Bakerako Nazioarteko Ikerketa Institutuaren datuen arabera.

Dirutza horrek nagusiki bi jasotzaile ditu: hatza eta kolpekaria, armada eta armagintza. Bikote horrek egiten du posible gizarte osoa bustitzen duen indarkeria giroa. Arma gehiago, biolentzia gehiago, eta, ez dezagun ahaztu, negozio handiagoa. AEBetan bertan, eta kanpoan ere bai. AEBetako Michigango Unibertsitateko ikertzaileek berriki egindako ikerketa baten arabera, AEBek suzko arma gehiago fabrikatzen dituztenean, Erdialdeko Amerikako eta Karibeko herrialde-

tan gora egiten du su-arma bidezko hilketa kopuruak. Armak ekoizteaz gain, batez ere saldu egiten dituztela. Eta asko.

Ikerketak erakutsi duenez, 1991tik 2019ra bitartean, AEBetan su-armen urteroko ekoizpena milioi bat unitate handitu ahala, Erdialdeko Amerikako eta Karibeko herrialdeetan 1,42 puntutan handitu ziren hilketak 100.000 pertsonako. Gutxi gorabehera, su-armekin lotutako 3.020 hilketa gehiago, AEBek merkaturatzen duten milioi bat arma gehiago bakoitzeko. AEBetako Alkohola, Tabakoa, Su-armak eta Lehergailuak Departamentuaren arabera, 2020an Erdialdeko Amerikan atzemandako armen %68 AEBek egin edo inportatu zituzten. Mexikoko gobernuak berak ere kereilak jarri izan ditu AEBetako armagintza enpresen aurka, "merkataritza praktika arduragabeak" leporatuta, legez kanpoko trafikoarekin eta mafiekin "elkar bizi" direlako.

Su-armen eskuragarritasuna handitzearen eta su-armek hildakoen arteko erlazioak agerian uzten ditu indarkerian oinarritutako eredu ekonomiko kapitalistak mundu zabalean dituen ondorioak. Tamalez, Europa ere norabide horretan doa, Ukrainako gerraren ondoren NATOk emandako aginduei jarraituta: armen sorkuntza bizkortzea eta aurrekontu publikoetatik diru gehiago bideratzea gerrara. ●

5

urtean, ia bikoiztu egin da seme-alabak eduki nahi baina ezin duten gazteen kopurua EAEn. Urte gutxiren buruan lanik aurkituko dutela uste dutenen kopurua 20 puntu beherago kokatzen da. Norberaren gogobetetzearen balorazioa 10 puntu jaitsi da 2015etik.

3

egunetik behin langile bat hil da Euskal Herrian, urtea hasi zenetik otsailaren 14ra bitarte. Durangon 47 urteko langilea hil zen otsailaren 13an, istripuz hildako 14. behargina 2024an.

227

pertsonak egin dute aldaketa EAEko erregistroan, Espainiako Trans Legea onartu eta urtebetera. Batik bat 14 eta 19 urte arteko gazteak dira aldaketa egiten ari direnak.

“Umorea oso maskulinoa da oraindik, gauza asko aldatu beharra dago”

MARIA RIVERO

Olatz Beobidek zuzendutako ‘eMcumeak’ umorezko obra taularatu dute Maria Riverok eta Itxaso Payak.

EUSKALERRIA IRRATIA (2024-02-12)



“GU HORRELA TRATATU BAGAITUZTE, ZER EZ DUTE EGINGO ESPETXE BARRUAN”

Zaballako espetxean hildako Oroitz Herreroren senideek salatu dute Herrerori ez diotela arreta mediku egokirik eman, eta kritikatu dute espetxeak eta Jaurlaritzak familiari emandako tratua.

ARGIA.EUS (2024-02-14)

“Zapia buruan eramateagatik diskriminatu egiten dituzte lantokietan”

JAIME IRIBARREN (LAB)


Elkarretaratzea egin dute Iruñean SOS Arrazakeria taldeak eta LAB sindikatuak salatzekeo zapia buruan erabiltzen duten zenbait emakumeri “mehatxuak” eta “irainak” eragin dizkietela lanean.

EUSKALERRIA IRRATIA (2024-02-14)



EZ DIRA ZENBAKIAK, PERTSONAK DIRA

Israelek egunez egun hildako palestinarrok, eraso hasi zuenetik



ITURRIA: Gazako Osasun Ministerioa

LGTBI+ ESKUBIDEAK

GREZIA / Greziako parlamentuak sexu bereko pertsonen arteko ezkontza eta adopzioa legezatu ditu. Urtarrilaren 15ean bozkatu zuten, eta 176 bozka jaso zituzten alde, 76 kontra eta bi abstentzio. Eliza Ortodoxoaren presioa jasan du parlamentuak. Hala ere, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza legezatzatzen duen lehenengo herrialde kristau ortodoxoa da, eta Europako 21. herrialdea.



AP

Etxegabetzea

Pasaiaiko portuko langileen familiak bizi diren Trintxerpeko etxebizitza bloke bat bota nahi dute Pasaiaiko Portu Agintaritzak eta Euskal Trenbide Sareak, 400 metro inguruko trenbide zati bat egiteko. Lau hilabetetan etxea utzi behar dutela ohartarazi diete 12 familiari.

Tortura

Euskal Herriko Torturatuak Saretzeko Talde Sustatzaileak aurkezpen agerraldia egin du. Torturatu guztiak batuko dituen sare bat osatzeko lan egingo dute, eta topaketa bat iragarri dute urtebete barrurako. Torturaren aitortzan torturatuak agente aktibo izan nahi dute.

Kartzela

Pablo González kazetariari espetxealdia luzatu diote zortzigarren aldiz. Otsailaren 28an bi urte beteko ditu Poloniako kartzelan Euskal Herriko kazetariak. Poloniako justiziak erabaki du beste hiru hilabetez luzatzea behin-behineko espetxealdia.

Osasuna

Autolesioak ugaritu egin dira nerabeen artean. Ez dute asmo suizidarik eta ez dute zertan buruko gaitzen bat izan: autolesionatzea min emozionala gestionatzeko modua da hainbatentzat. Adin txikikoen %20ak bere buruari min fisikoa eragin dio edo eragiten dio.

Laborantza

Protesta egin dute Egurra ta Kandela laborari agroekologikoei Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean. Laborantza eredia "errotik" aldatzea eskatu dute, "trantsizio agroekologikoa" bultzatzea alegia. Biolur, Biziola, EHKO, Erein da jan eta Azataporruak babestu dute protesta.

Euskara

"Euskararen semaforoa" sortu dute, ekintzak antolatzerako orduan hizkuntza eskubideei arreta jartzen hasteko. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak sortu ditu tresna eta baliabide kutxa, eta eskualdeko herritar, elkarte eta entitate orori luzatu die erabiltzeko gonbita.

TARAJALGO SARRASKITIK 10 URTERA

GENOZIDIO ISILA ATLANTIKOKO MUGAN

Ceutako Tarajal hondartzan hamalau lagun hil zituzten duela hamar urte, itsasoz igeri Europara iritsi nahian, guardia zibilen eta Marokoko polizien tiro artean. Haien senide eta lagunek urteurrena baliatu dute justizia eskatzeko, auzia oraindik epaitegietan baita. Justizia beraientzat, eta justizia geroztik Europako hegoaldeko muga zitalean hil diren beste milaka lagunentzat: 2023an 6.618 izan dira, Ca-Minando Fronteras elkartearen arabera. Itota hil dira ofizialki, baina migrazio politika genozidek itsasoan lurperatu dituzte haien gorpuak eta memoria.

 URKO APAOLAZA AVILA

Ceutan, Duintasun Martxa batek gogoratu ditu, beste behin, duela hamar urte Tarajal hondartzan hildakoak. 2014ko otsailaren 6ko goizaldean, 300 pertsona inguru Maroko eta Espainiako Estatua banatzen dituen pasabide hartatik igerotzeko asmotan abiatu ziren, gehienak Saharaz hegoaldeko herrialde gatazkatsuetatik ihes egiten ari ziren migratzaileak. Euren buruak Marokoko poliziek atxikita ikustean, askok itsasora egin zuten jauzi, hondartzako kai-muturra igerian inguratzea zelako Europara iristeko azkeneko aukera. Baina bestaldean guardia zibilen gomazko pilotakadak eta ke-potoak zituzten zain.

Karelez kanpoko motorrekin abiadan zihoazen txalupetatik egin zieten eraso batzuei; punteria egiten aritu ziren kaitik bertatik bertara bestetuekin. Hamalau pertsona hil ziren eta soilik 27 lagunek lortu zuten hondartzara iristea, baina

berehala kanporatu eta Marokoko jendarmeen hatzaparretan utzi zituzten.

Tarajalgo sarraskian gertaturikoa berezia bada, ez da mugako polizien axolagabekeria eta ankerkeriagatik –horretan iaioak direla askotan erakutsi digute lehenago eta geroago–, baizik eta hamar urteotan auzi judizialak izandako ibilbide etsigarriagatik. 2015ean hamasei agente deitu zituzten deklaratzera, baina epaileak kasua itxi zuen eta ordutik hona jarritako helegiteen aurrean behin eta berriz absolbitu dituzte. Orintxe bertan Espainiako Konstituzio Auzitegiak erabakiren bat hartu zain dira hildakoen senide eta lagunak.

“Hau adibide garbi bat da, erakusten duelako nola eraikitzen den mugako krimenen gaineko zigorgabetasuna eta nola legitimatzen diren arrazakeria instituzionaleko jardunbideak”. Hala dio Duintasunaren Martxako Bilboko taldeak. Ceutako mobilizazioa aurrera

eraman ahal izateko talde ugari osatu dituzte Espainiako Estatuan barrena, eta horietako bat da Bilbokoa. ARGIAri igorritako ohar batean diote hegoaldeko muga hori “ez-lekua” bihurtu dela: legedia beste modu batean ezartzen den lurralde bat, zeinean “geografiak beste kontzeptu juridiko bat” hartzen duen, Espainiako Barne ministro izandako Jorge Fernández Díezek lotsagorritu gabe esan zuen moduan. Etxe barruan dugun Bidasoako mugarako, berdinberdin balioko luke baieztapen horrek.

Yves, Samba, Daouda, Armand, Luc, Roger Chimie, Larios, Youssouf, Ousmane, Keita, Jeannot, Oumaurou, Blaise eta nola izena zuen ez dakiten beste pertsona bat. Denak izan dituzte gogoan Duintasunaren Martxan. Baina horrekin batera, “mugako erregimen genozida” ere salatu dute: “Garrantzitsua da ulertzea honek guztiak 1492ko erregimenarekin hasi zen kolonizazio gerra naturalizatu

COORDINADORA DE BARRIOS





eta zabaltzen duela. Hierarkia arrazialak erreproduzitzen ditu demokraziaren eta giza eskubideen falaziapean, eta euren logika geopolitiko eta kapitalistaren barruan egiten da hori”.

Prozesu judizial luzean, Tarajalen bizirik irten zirenak berriz kriminalizatu dituzte, eta larriagoa dena, migratzea delitua dela dioen ideia indartu egin da, *errua* pertsona horiena balitz bezala “migratu egin zutelako”.

“DAOUDAREN ANAIA NAIZ”

Nazioarteko migrazio politika “nekropolitika” dela diote migratzaileen eskubideen aldeko elkarteek, gogoratuak izateko eta dolu duin bat izateko eskubidea ere ukatzen baitzaie hildakoei. Tarajalgo kasuaren abokatu Patricia Fernándezen esanetan “arrazakeria modu bat” da pentsatzea pertsona batzuegatik negar egiteak ez duela merezi “heriotza haien bizitzako ibilbidearen parte bihurtu delako”.

Espainiako Estatuaren eta Marokoren arteko aldebiko “kooperazio” akordioek migratzailea kriminalizatzea baino ez dute pertsegitzen, “mafien” kontrako borroka estakuru hartuta, Rabatek mugatik urrunago bidali ditzan

Aurtengoa Duintasunaren Martxaren XI. edizioa izan da, eta 250 elkarteren babesa lortu dute, horietako asko Euskal Herrikoak. Ceutako harrizko hondartza txikian dozenaka lagun elkartu dira otsailaren 3an: hainbatek afixak daramatzate eskuan, beste batzuek egia, justizia eta erreparazioa eskatzen duen pankarta luzea zabaldu dute, hesi txarrantxadun mehatxagarriaren itzala atzean dutela.

“Daoudaren anaia nagusia naiz, Tarajalgo biktimitako bat”, hasi da haietako bat. *La Marea* egunkariak jaso du bere testigantza osorik: “Hamar urte hauek gogoratzean nire sentimendu batzuk konpartitu nahi ditut zuekin. Zera mingots batek betetzen ditu gure bihotzak eta gure familienak. Minez eta pena handiz hitz egiten dut, hamar urte dira gure anaiak ondotik joan zirenetik, urte zailak. Hil ziren modua, Gobernuak nola egin zien tiro... mina sakondu besterik ez du egiten horrek”.



CAYUCO El Hierro irlatik gertu, geldirik, abenduaren 10ean ateratako argazkian; barruan 70 pertsona zihoazen. Eskuinean, Tarajal hondartzan afixak eskuz egiten hamargarren urteurrenean, "Indarkeriarik ez mugetan", dio.

AZKEN SEI URTEETAKO URTE HILGARRIENA

Senitarteko baten heriotza mingarria da, baina aipatu ezin denean jasangaitza bihurtzen da. Ca-Minando Fronteras kolektiboak alarma piztu du, itsasoan Europara sartu nahian hiltzen diren pertsonen gaineko isiltasuna handituz doalako: hildakoak tabua bihurtu dira, estatuek errepresioarekin eta atxiloketekin erantzuten dutelako eta estigmak pertsegitzen dituelako haien familiak: "Tabuaren onarpen sozialak mesede egiten die muga kontrolatzeko politikei eta


gizatasunik gabeko diskurtso arrazistei", dio elkarteak bere azken txostenean.

Ca-Minando Fronterasek hogeiei urte baino gehiago daramatza migratzaileen eskubideen alde lanean –ARGIAko irakurleari seguruenik ezagun egingo zaio bere sortzaile den Helena Malenoren izena, Marokoko justiziak jazarritako kazetari eta aktibista–, eta urtero *Derecho a la Vida* (Bizitzarako eskubidea) txostena kaleratu ohi du hainbat erakunderen laguntzaz, tartean Nafarroako Gobernuua.

Mendebaldeko muga euroafrikarrean –Kanariar Uharteak, Gibraltarko itsa-

sartea, Alboran eta Aljeriako ibilbideak biltzen dituena– gertatzen diren giza eskubideen urraketak eta heriotzak monitorizatzen ditu Ca-Minando Fronterasek txostenean, eta horretarako "urtean 365 egunez eta egunean 24 orduz" lan egiten duen sare bat dauka. 2023ko datua ikaragarria da: 6.618 lagun hil ziren itsasoan muga horretatik Europara sartu nahian. Zifra horrek, bere horretan, nahikoa izan behar luke nazioartean lurrikara mediatiko bat sortzeko... Ba ez, eta egon zaitezketen zain.

Duela sei urte txostena egiten hasi zirenetik, iazkoa izan da urte hilgarriena –aurreko urteko hildako kopuruaren hirukoitza da–. Heriotza gehien-gehienak, Kanariar Uharteetara joateko Atlantikoko ibilbide arriskutsuetan gertatu ziren, 6.007 hildako zehazki.



SENEGALAN ERREPRESIO PREBENTIBOA

Senegal bihurtu da migratzaileen abiapuntu nagusietakoa. Baliabide naturalak erazten dituzten atzerriko enpresen sistema kolonial batek agintzen du herrialdean. Egoera ekonomiko kaskarrak eta hauteskundearen testuinguruan Macky Sall presidentearen kontra sortu diren protestek eraginda, milaka gazte eta nerabe irten dira kalera, baina beste askok *cayuco*-etan migratzea beste irtenbiderik ez daukate momentu honetan: 843 senegaldar hil dira bidaiari horietan urrian, soilik hilabete bakarrean.

Europako herrialdeek migrazioaren kontrola esternalizatu dute eta jatorriko

estatuei eman diete migratzaileak erreprimitzeko zeregina. Hala, Senegalgo Gobernuak migratzaile "potenzial" eta antzeko kontzeptu gutxiesgarriak erabilita, itsasoratu baino lehen prebentiboki atxilotzen ditu haietako asko. Gainera, tratu txarrak jasan ondoren sorterrira itzularazten duten herritarrek porrot eta erruduntasun sentimenduarekin bizi behar du sarritan, eta horrek isiltasun handi bat sortzen du bere inguruan.

Espainiako Estatuaren eta Marokoren arteko aldebiko "kooperazio" akordioak ere norabide berean doaz: migrazioa kriminalizatzea baino ez dute pertsegitzen, mafien kontrako borroka estakuru hartuta. Madrilek itsas eremu zabalen gaineko subiranotasuna aitortu dio Rabati, honek Europara igaro nahi duten pertsonak bere mugetatik urrunago bidali ditzan.

Migratzaile askok hegoalderago jo dute, Marokoko Agadir eta Mendebaldeko Saharako Dajla hirien arteko eremura, handik Kanariar Uharteetara egiteko apenas flotatzen duten pneumatikozko txalupa ziztrinetan. Horrek, noski, arriskua areagotu duen neurrian hildako kopurua ere handitu du 2023. urtean: 1.418 lagunek galdu dute bizia.

84 ITSASONTZI OZEANOAK OSORIK IRENTSITA

Arrisku handiena Gambiatik bidaiatzen duten herritarrek dute, zalantzarik gabe. Urtero –normalean urri erditik aurrera– jende ugari hango kaietatik itsasontzi zatarretan irteten da, milaka kilometrotara dagoen espainiar artxipelagora nabigatzeko. Afrikako kostalde zabal hartan naufragio bat gertatzen denean herrialde askoren koordinazioa behar izaten da biktimak "aktiboki" bilatzeko, baina Ca-Minando Fronterasek salatu duenez ez da horrela izaten: "Atlantiko beste ibilbideetan gertatzen den be-

zala, hemen ere kontrol begirada soilaz egiten dira bilaketak".

2023ko urriaren 19an, Gambia eta Senegalgo mugan dagoen Kartong herritxotik *cayuco* bat irten zen 155 migratzaile zeramatzala. 155 pertsona, Kanariar Uharteetatik Europako atea gurutzatu eta bizitza duinago bat izateko esperantzarekin. Handik hiru astera, senideak Ca-Minando Fronteras kolektiboko ki-deekin kontaktuan jarri ziren larri, haien berririk ez zutelako oraindik. Aljeriako kostazainek erreskatatu zituztela zabal-

du zen hasiera batean, baina zurrumurru faltsua zen. Ez dira inon azaldu, itsasoak irentsi ditu beste asko bezala.


Txostenean migratzaileen eskubideen aldeko kolektiboak ziurtatu duenez, pasa den urtean gutxienez halako 84 itsasontzi desagertu ziren ozeanoan jendez gainezka muga euroafrikarra zeharkatu nahian, inolako arrastorik utzi gabe. Estatistikarik ez dago haien inguruan, ikusezinak bezain oroitezinak dira, eta Tarajalen hil zuten hamalagarren laguna bezala, haien izenik ez dakigu. ●

Kamerundik Europara, besoa odoletan igerian

Ludovic N. kamerundarrak –ez da bere benetako izena– 15 urte zituen Tarajalgora gertatu zenean. Urte batzuk lehenago osabarekin bere herriatik ihes egin eta bidaia amaigabea hasi zuen: basamortua gurutzatu ondoren Aljerian atxilotu zituzten, eta elkarrengandik bananduta, urte eta erdiz Marokon biziraun zuen mutikoak, kanpaleku klandestinoetan. Denbora horretan hainbatetan saiatu zen Espainiako Estatura sartzen, baina beste hainbestetan harrapatu, jipoitu eta kanporatu zuten basamortura.

2014ko otsailaren 6an Ludovic N. Ceutako hondartza txikian zegoen. Orain, bere salaketa Nazio Batuen Erakundera eraman dute, eta Europako Giza eta Konstituzio Eskubideen Aldeko Zentroak (ECCHR) bere webgunean zabalduko dokumentu baliotsu baten bidez jakin dezakegu gertatu zitzaiona.

Kamerundarrak ez zekien igeri, horregatik, flotagailu bat aldean hartu eta Tarajalgora hondartzako kai-muturraren harriztarrei helduta abiatu zen askatasun desiratuaren bila. Baina agenteek besoetan borra-kolpeak emanez egin zioten ongi etorria: igerian ez dakienari itsasoan heldulekurik gabe uztea zer da, homizidio saiakera ez bada? Besoa odolez urratuta eta negarra eragiteko gasarekin ezin arnasa harturik, aurrera jarraitu zuen hala ere, hondartzaren beste aldera iritsi arte. Berehala bueltarazi zuten txarrantxetatik kanpora, Marokora.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Mikel Galar Idoate

ADIMENTSU NATURALA



KONTUZ IBILI BEHAR DUGU DATUAK EMATERAKOAN, BAINA PARANOIKO BIHURTU GABE



Giza adimena beharrezkoa duten ikaskuntza, arrazoiketa edota pertzepzioa bezalako zereginak egin ditzaketen sistemak sortzera bideratzen den informatikaren arloa da adimen artifiziala (AA). Horretan aditua eta aritua da Mikel Galar irakasle eta ikerlari iruindarra eta itxaropenerako mezu bat eman digu: adimen artifiziala, horren adimentsua bada, gai izanen da hizkuntza gutxituetan ere bikain aritzeko.

 REYES ILINTXETA  ZOE MARTIKORENA / ARGIA CC BY-SA

2011tik zara irakaslea NUPen. Zein da zehazki zure lana?

Irakaslea naiz Adimen Artifizial eta Konputazio sailean. Klasea ematen dut ingeniari informatikako graduan eta masterrean. Lanaren beste aldeia ikerkuntza da. Adimen Artifiziala eta Ikasketen Automatikoaren arloan aritzen naiz gehienbat.

Berriki Cambridgeko unibertsitateak argitara eman duen liburu bat plazaratu duzu beste ikerlari batekin elkarlanean. Nolako da?

Big datari buruzkoa da. Saiatzen da azaltzen nola egin dezakegun datu asko ditugun datu horiek prozesatzeko modu eraginkorrean. Hau ulertzeko esango

genuke guk normalean ordenagailu batekin lan egiten dugula eta erabiltzen dugun informazioa kudeatzeko ez dugula arazorik izaten, baina imajina dezagun Googlek zenbat datu dituen web orriak prozesatzeko, esate baterako. Ordenagailu bat ez da gai informazio hori guztia gordetzeko, beraz, kasu horietan egiten dena da ordenagailu asko aldi berean erabili, datu horiek banatzeko, baina aldi berean lotuta mantenduz informazioa elkarrekin prozesatu ahal izateko. Liburuan azaltzen dugu hori nola egin Python programazioa lengoaiarekin eta Spark izeneko erremintarekin. Ikasketen liburuak da, gradua amaitzen edo masterrean egiten ari direnen ikasleei zuzendua bereziki.

Eta zer da sortu duzuen Neuraptic IA enpresa?

Unibertsitatearen arlo bat teknologiaren transferentzia da. Hemen egiten ditugun ikerketen emaitzak merkaturatzean datza hori. Modu honetara gizarterako onuragarria den zerbait lortzen da eta, aldi berean, ikerkuntzarako dirua ere eskuratzen da. Orain dela zenbait urte, doktore-tza egiten ari ziren bi ikasle eta hirurok hasi ginen enpresentzako hainbat produktu egiten adimen artifiziala erabiliz, eta ikasketak amaitu zituztenean *spin off* hori sortu genuen, hau da, unibertsitatean sortzen den enpresa bat kanpo lanak egiteko. Unibertsitateak etekinaren zatitxo bat hartzen du eta enpresei haien teknologia garatzen laguntzen die.



Mikel Galar Idoate

IRUÑEA, 1986



Ingeniari informatikoa eta NUPeko doktorea da. Konputazioaren Zientzien eta Adimen Artifizialaren arloko irakasle titularra da NUPeko Estatistika, Informatika eta Matematika sailean. Smart Cities Institutuko (ISC) ikertzailea, Konputazio Zientzien eta Adimen Artifizialaren Tracasa katedraren zuzendaria, Neuraptic AI enpresaren sortzaileetako bat eta Emotional Films proiektua garatzen ari den ikerlari taldeko kidea da. 56 ikerketa-proiektutan lan egin du, ehun argitalpen baino gehiago ditu idatziak, Euskalerrria Irratiko kolaboratzailea da eta 2020an, irakasleen bikaintasun saria jaso zuen NUPen. Cambridge University Pressek azaroan argitaratu zuen *Large-Scale Data Analytics with Python and Spark* liburua idatzi du Granadako Unibertsitateko Isaac Triguero Velázquez ikerlariarekin batera.

Iniciate saria eman zizuen Nafarroako Gobernuak 2020an horregatik. Punta-puntako enpresa da Neuraptic IA?

Bai. Enpresa sortzen ari ginenean Nafarroako Gobernuak CEINen bidez sari bat eman zigun. Horri esker negozio plana egin ahal izan genuen dena abiarazteko.

Egia esan, hemen Nafarroan adimen artifizialean oinarritutako enpresa asko ez daude. Aurpegi-ezagutza egiten duten Das-nano edo Veridas agian ezagunenak dira, baina horiek AA erabiltzen dute soilik kasu zehatz horretan. Enpresa gehienak ez daude prest eta horregatik gurea bezalako ekimenak beharrezkoak dira beste enpresei laguntzeko.

Orain berriko Navarra Artificial Intelligence Research Center jarri dute abian. Nola doa?

Hasi da martxan eta oso positiboa da, baina hori unibertsitateetik bultzatu beharko litzateke eta horretarako jende falta dago. Oso irakasle eta ikerlari gutxi gara konputazio eta AA sailean eta horregatik kanpoko jendea ekarri behar da zentro horretara.

Bestalde, oso zaila da jendea unibertsitatean gelditzea, enpresa munduan eskaintzen diren soldatak hementengoen bikoitza direlako. Soldata horiek ezin dugu lehiatu.

Gaur egun informatikako ikasleak ateratzen direnean ez zaie lana falta. Badira ikasleak hirugarren mailan jada lanean hasten direnak, ez praktiketan baizik eta kontratu onekin. Lan asko dago, ez solik big dataekin lotuta, baita software garatzaile gisa ere.

Zeure burua nola ikusten duzu etorkizunean?

Ni hemen gustura nago eta hurrengo urteotan hemen jarraitzeko asmoa dut. Klaseak, ikerketa eta dibulgazio lana ere oso garrantzitsuak direla iruditzen zait.

Emotional Films ekimenean ere bazabiltza. Zer da?

Ikuslearen sentimenduen arabera aldatzen diren pelikulak egin ahal izateko sistema bat sortzea da honen helburua. Horrela, adibidez, eszena batean barre egiten baduzu, sistemak interpretatzen du gustatu zaizula eta bide jakin batetik abiatuko da. Edo Iruñean ari bazara pelikula hori ikusten, ba

agian, protagonistak kalera atera eta Gazteluko plazan daudela ikus daiteke eta Madrilen badaude, Puerta del Solen, adibidez. Erabiltzen dugu daukagun ikuslearen informazio guztia pelikula pertsonalizatu bat sortzeko, momentuan eta denbora errealean.

Proiektua joan den urtean bukatu zen. Teknologia prest dago eta orain enpresa finantzazio bila ari da film oso bat egiteko. Demostratzaile batzuk ditugu hori erakusteko. Walt Disney eta Carl Sagan ziberdizipuluak sortu ditugu. Zuk haiekin hitz egin dezakezu bere ezagupen arloari buruz eta haiek zure emozioak erabiliko dituzte modu batera edo bestera erantzuteko. Beste demostratzaile bat dugu ipuinak kontatzeko. Zuk eskatzen ahal diozu nahi duzunari buruzko ipuin bat, adibidez neska baten istorioa, Iruñean gertatzen dena eta dinosauroak agertzen direna, eta hark AAren bidez asmatzen du, momentuan irudiak denbora errealean emanez.

AA oso aurrerapen garrantzitsua da. Sua, idazketa eta Internetaren pareko aurrerakuntza da?

Hori esaten da, bai. Noraino iritsiko gara? Ikusiko dugu. Aldaketarik handiena iritsi da Chat GPTekin. Izan ere, erabiltzen ez dutenak jada atzean gelditzen ari dira. Gauzak azkarrago egiteko aukera ematen dizu. Baina egia da mugak ere badituela. Oso espektatiba altua daukagu eta segur aski orain joango da hozten pixka bat, ikusiko dugulako oraindik ezin dugula egin hainbeste gauza bat-batean. Hala ere, lan batzuk jada aldatzen hasiak dira.

Zeintzuk izanen dira datozen urteetako berrikuntza nagusiak?

Denok gaude zain ea zer egiten duten enpresa handiek, Googlek, eta Chat GPT sortu zuen Open AI-k, bereziki. Esaten dute aurten aterako dela GPT 5. Orain GPT 4 dago eta denok doan erabiltzen duguna GPT 3.5 da. Google ere hor dago lehian eta duela hilabete pare bat aurkeztu zuen Google Gemini, AA mugikorretan eta ahots bidez erabiltzeko sistema, baina oraindik ez du GPT 4ren maila lortu. Chat GPT oso berrikuntza handia izan zen. Jendeak ez zekien ezer eta bat-batean agertu zen erreminta hau, orain ari dira aurrerapen inkrementalak egiten, baina, printzipioz, nire ustez denbora laburrean beste salto handi bat ikustea zaila izango da.



Ahozko ohiko komunikazioa makinekin izanen da hurrengo erronka nagusia?

Hori badago. Gauza batzuk egiteko teknologia prest dago, baina oraindik ez dute hori dena izateko egin behar den puzzlea muntatu. Zuk instalatzen duzu GPT telefonoan, adibidez, eta hitz egin ahal diozu. Berak testu bihurtuko du eta testu moduan erantzungo dizu.

Windows 11k baditu Windows Copilot eta Office co-pilot. Eskatzen ahal diozu Word testu batean duzun informazioarekin Power Point bat egiteko irudiekin eta guzti. Agian ez da perfektua izango, baina lehenengo lan hori aurreratzen dizu eta zuk bakarrik zuzenketak egin beharko dituzu.

Sistema horiek gure eguneroko lanean ikusiko ditugu eta hori izanen da aldaketarik handiena. Baina argi izan behar dugu beti pertsonak behar direla makinak gauzak ongi egiten ari direla egiaztatzeko. Zuk galdetzen badiozu GP-Tri, adibidez, Pedro Sánchezi buruzko informazioa bitan, agian jaiotze data desberdinak emango dizkizu. Dena zailtzan jarri behar da, hori da gaur egun sistema horien arazorik handiena.

Hori zergatik gertatzen da?

Ulertzea zaila izan liteke. Sistema horiek ez dute memorizatzen Interneten dagoen informazio guztia. Hori Google modukoak izango litzateke. Sistema horiek informazio guztia hartu eta hitz batzuen atzean beste batzuk jartzen dituzte, hor ager-

tzeko probabilitateak kontuan hartuta. Horrela, datu koherente bat emango dizu beti, baina ez dago bermatuta zuzena denik. Zenbat eta datu eta informazio gehiago eskura izan, orduan eta zehatzagoa izango da; hala ere, oraindik askotan ikusten dira zentzua duten erantzunak, baina egiazkoak ez direnak. Horregatik ikasi behar dugu erreminta hauekin oso kritiko izaten.

Itzultzaile automatikoekin bezala, beti erne ibili behar dugu?

Horixe. Pertsona bat behar da beti dena kontrolatzen. Itzultzaileek asko hobetu dute eta normalean ez dute sortzen jadanik existitzen ez den zerbait. Agian ematen dizun ordaina itzulpen literala da eta hizkuntzaren aldetik ez da oso ona izango, baina ez du deus berririk asmatzen. Beste sistema hauekin, aldiz, GP-Tri eskatzen badiozu zerbait itzultzea zerbait itzuliko du, baina gerta daiteke hor erdian beste zerbait sartzea, bere kabuz. Gauzak itzultzeko, printzipioz, hobe da itzultzaile automatikoak erabiltzea.

Zinemaren eta ikus-entzunezkoen alorrean gauza harrigarriak ikusiko ditugu?

Bai, eta jada aktore batzuk hasi dira haien irudi eskubideak saltzen pelikuletan AA bidez moldatutako irudiak erabiltzeko. Aktore batzuk betirako izango ditugu.



Eskatzen badiozu adimen artifizialari erizain baten irudia sortzeko egingen dizu, kasuen %95ean, neska zuri bat"

Ez da gauza bera izango, baina aurpegia eta ahotsa berdinak izango dira.

Aldi berean teknologia hau erabil daiteke *deep-fake*-ak egiteko. Egin deza-kegu edozein politikariren bideoa edozein gauza esaten eta hori oso arriskutsua da. Eta animazioan ere gauza harrigarriak egin daitezke.

Eguneroko bizimoduan ere, hildakoak "berpizteko" aukera izanen dugu?

Halakoak entzuten dira. Lortzen baduzu zure amonaren eguneroko bat, berak idatzitako informazio pila bat, argazkiak, bideoak... Gauza horiek eta irudiak sortzeko sistema bat GPT moduko lengoia sistema batekin konbinatuta, sor dezakezu bere itxura duen pertsonaia bat eta berearekin solas egin. Horrelakoak egiteko teknologia prest dago, baina beste kontu bat da alderdi etikoa. Zer datu erabil dezakezue, norik eman behar duen baimena... Chat GPT entrenatuta dago Interneten dagoen informazio guztia hartzeko, baina agian etikoki dena ezin da erabili. Haiek erabiltzen dute baimena izan ala ez izan. Eskubideen inguruan ere oraindik ez dago oso garbi nola kudeatuko den eta oso gai delikatua da.

Gaur egun mugarrik ba al da?

Europar Batasuna da une honetan arau gehien jartzen ari dena eta laster aterako



Austeritatearen itzulera

Urtarrilaren 17an Europako Legebiltzarrak Egonkortasun Itunaren erreforma onartu zuen. Arau eraberrituek aurrekontuaren zorroztasuna indartzen dute eta joan den hamarkadan ezagutu genuen austeritatearen ereduari ateak zabaltzen dizkiote berriz ere. Itun berria ez da 2010eko doikuntza gogorraren parekoa, baina Ekonomi eta Diru Batasunaren ortodoxiaren itzulera dakar. Jakina da Maastrichteko Itun honek defizit publikoaren eta zor publikoaren sabaia Barne Produktu Gordinaren %3an eta %60an ezartzen dituela, hurrenez hurren. Batez ere defizitaren muga betetzeko agindua irmoki betetzea eskatuko zaie estatu kideei.

Estatu ugariak duten zor publikoaren tamaina handia kontuan hartuta, %60ko mugara jaitea ezinezkoa da, baita epe ertainean ere. Sei estaturentzat zor publikoa BPGarekiko %100aren gainetik kokatzen da eta beste hiruk %70 gainditzen dute. Aurreko hamarkadako doikuntza gogorraren ondorioz, batez ere Europa hegoaldeko estatuek gizendu dute zorra (Grezia, Italia, Frantziako Estata, Portugal eta Espainiako Estata). Bestalde, gaur egun defizitaren muga hamaika herrialdek gainditzen dute. Kontu publikoak doitzeko agindu berri honek Europako Batasuneko estatu kideen artean 100 mila milioi eurotako aurrekontu murrizketa ekar dezake, Europako Sindikatuen Federazioaren arabera. Aurrekontu publikoaren aus-

Pandemia garaiko salbuespenaren ondoren austeritatearen itzulera Europako Batasuna ohiko eredu neoliberalaren ardatzetan birkokatzen du

teritate zaharberrituak atzerapausoak ekarriko ditu gehiengoaren bizi baldintzetan zein gizarte kohesioan epe laburrean.

Pandemia garaiko salbuespenaren ondoren austeritatearen itzulera Europako Batasuna ohiko eredu neoliberalaren ardatzetan birkokatzen du. Inflazioaren aurkako borrokaren aitzakiarekin azken bi urteetan Europako Banku Zentralak interes tasaren neurri gabeko igoerak hartu ditu. Igoera horren emaitza ez da izan inflazioa murraraztea, baizik eta banketxeen mozkinak biderkatzea. Bada, jokabide hori ekonomi politika zorrotzerako bidean lehen urratsa izan da. Behin eta berriz,



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA


austeritatearen kulturaren eta hegoaldeko bere bazkideekiko mesfidantzan harrapatuta dagoen Alemania izan da estrategia zaharrera itzultzeko eragile behinena. Ikusgai dago joan den hamarkadako atzeraldi handiaren esperientzia traumatikoak eta itun berriak jasotzen dituen malgutasun mekanismoek nolabaiteko arnasaldia ekarriko duten.

Nolanahi ere, Next Generation fondoen bultzadaren atzean antzeman zen estatu kideen arteko nolabaiteko kooperazio dinamikak ez dirudi jarraipena izango duenik. Behin eta berriz estatuen arteko lehia da gailentzen ari dena. Lehia horri ortodoxia neoliberalaren itzulera gehitzen badiogu, Europako Batasuneko ohiko lurralde eta gizarte desegonkortasun eta desparekotasunak areagotu baino ez dira egingo. Trantsizio ekologikorako bidea ere ez da erraza izango lehentasunak arlo fiskalera makurtuko badira. Eraikuntza instituzionalaren arazoez gain, enpresa handiek eta lobbyek Europako instituzioen gainean duten presio ahalmen indartsua aintzat hartzen badugu –glifosatoaren eta bestelako pestiziden erabilera luzatu izana, kasu– bistakoa da ekonomi esparru zaharkitua eta bidegabearen sarean kaiteatuta jarraituko dugula. Epe labur eta ertainean zerga sistemaren erreforma sakon eta bidezkoa ezinbestekoa da babes sozialean, errenta birbanaketan eta trantsizio ekologikoan atzerapausoak eman ez daitezten. ●

Lanaren obsesioa



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

Gertatzen ari da lanaren gaiarekin zerbait, aldaketa bat, politikoa eta soziala, eta nekez gus-tukoa izan litekeena.

Lana aipatzean, maiz etortzen zait gogora Urepele aldera joatean, bihurtu-gune batean, luzaz ageri izan den idazkia, eta agian han dirauena, baina nolaz aspaldian ez naizen joan ez nezake erran xuxen. Euskal Herrian zehar, paretak ez dira luzaz birjinalak egoten, alta, bazezan han idazki partikular bat. Deusen erdian, bide bazterrean den ttattola zurpailaren alde batean, noizbait esku batek idatzi zuen: LANA. Letra larri, maiuskula eta beltzetan, besterik gabe. Etsipenez idatzi lau letra ziren, beren gordintasun guztian. Oihu biluzia. Lana: ogibide bat, denentzat eta bakoitzarentzat, bizitzeko doia eman lezakeena, gazteak hor berean atxikiko lituzkeena, geroari pentsatzen utz gaitzakeena. Lanik ez zen garaian idatzia izan zen eta, dudarik gabe, langile batek idatzia.

Lana gure aitama eta arbaso anitzen balio zentrala izan zen, eta anitzetan zaurgarria, belaunaldi gazteak etxetik haizatu eta munduaren beste puntaraino eramán izan zituena, nehork nahi ez zituen lan miserableak egitera, ezinber-tzez, eta gogo eta gorputzak behar baino

gehiago higatu zituena, hemen berean aritu zirenen kasuan ere.

Oraingoan lana ez da bakarrik lanik ez duten pobreen obsesioa.

Izan ere, Macronen ekipoaren obsesioa da, burgesena; hain gutxi lan egin duen Manu konbentzitua baita langabetuen tasa zor zaiela lanera joateko gogorik ez duten alferrei: bere iduriko, lana badelarik karrikaren bestaldean itzulipurdika, oro gara bizi irus eta lanari mus eginez, alokazioen beha ahoa zabalik, ez baitugu amesten berearen gisako *costard* bat.

Urtarrilaz geroztik, *Pôle Emploi* (Enplegu Zentroa) deitzen zen langabetuen bulegoak izen berria du: *France Travail* (Frantzia Lana). Gogogabetzen nauten bi balio uztartzen ditu orain. Eta izen aldaketak izaera berria ere dakar berekin: kotizazio denbora luzatzen eta alokazio eskubideak mendentzen ditu. Lanera denak! Frantziaren *berrarmatze* ideiarri lotua da hertsiki: orain ahal bezainbat haur egin eta egunak lanean pasa beharko genituzke. BERPIZTU DA IRRI TARTE GUTXI UZTEN ZUEN PÉTAIN-EN IDEALA: patria, lana, familia.

Urruna zitzaidan kontua, anakronikoa. Horra non iragan hilabeteaz geroztik hurbilago sumatzen dudán. Izan ere, Euskal Hirigune Elkargoak igande-

ko lanari buruz eztabaidatu zuen eta erabakia hartu saltegiak irekitzeko hamabi igandez urtean. Proposamenak onartezina bazirudien ere, onartu zen. Noski, baldintza batzuekin, hala nola baimen bidez gauzatzea, ez herri guztietan eta abar. Alta, aukera gertatuz gero, pixkanaka, erabakiak bere bidea egingen du. Eta horrela, gurearen gisa definitzen dugun instituzioak deliberratu du hertsapen ekonomikoak derri-gorturik beharrean den langileak larunbat-igandeak lanean iragan litzakeela, bazterrean utzirik familia eta lagunak, baita osasun, ongizate eta sozializazio grinak oro, beste zenbaitek erosteko *souvenir* polit bat, pizza izoztu bat eta Coca-cola botila bat, denak ere prezio ikaragarrietan.

Ez dakit zer pentsatuko zuketén gure aitzinekoek, ez eta LANA pintatu zuen eskuaren jabeak horretaz, gaurko goi mailako klaseek duten lanaren obsesioaz eta langile gisa ditugun aldarrikapenez lan denboraren murrizketari, lau eguneko asteari eta lan sariei buruz. Distantzia handia da aldarrikapenen eta erabakien artean, distantzia handiagoo lanean baizik nahi ez gaituztenen eta lanetik gogotik ihes egingen genukeenen artean. ●



IÑIGO MARTINEZ PEÑA
FILOSOFOA

Gorputzaren konkista

Gorputzaren gaiak pisua hartu du egungo diskurtsoetan, era askotara agertzen zaigu. Hala ere, eztabaida berri samarrak dira: beste garai batzuekin alderatuta, gorputza nahiko baztertua egon da Mendebaldeko pentsamenduaren historian.


Niri, egia esan, lagungarria egiten zaizkit Jacques Lacan-ek erabilitako hiru terminoak gorputzaren gaiari aplikatzeko. Sinbolikoa, irudimenezkoa eta erreala. Hiru hari, gorputzera bide desberdinetatik hurbiltzeko, gaia sinplifikatu gabe. Askotan entzuten baitugu: “Ni nire gorputza naiz”. Baina nori buruz eta zer gorputzi buruz ari gara? Irudiari buruz? Organismoari buruz? Geure buruaz esaten dugunari buruz?

Har dezagun gorputza bere dimentsio sinbolikoan. Zertan datza? Presentziaren eta absentiaren arteko jolasean: badago eta ez dago. Gorpuarekin ere lotu dezakegu, hilerrian agertzen den izenarekin, harrian markatutako hitzekin: modu horretan presente egiten ditugu jada ez dauden gorputzak, haien absentzian sinbolo bat jarrita. Pentsa, adibidez, zer garrantzitsua den senide eta lagunentzat desagertutako pertsonen gorpuak topatzea! Zenbat buruhauste dakarren itsasoan galdutakoen gorpuak aurkitzeak memorian leku sinboliko bat izan dezaten. Beste dimentsio bat hartuta, irudimenezkoa ere bada gorputza. Irudi horretan

batu egiten dira gure gorputzaren atalak: besoak, hankak, belarriak, eskuak... Eta ez pentsa, ez da hain erraza gorputzaren zatiak batzea: jaioberri batek konexiorik gabeko gorputz pusketak baino ez dauka eta ispiluko irudiak gorputzari osotasuna ematen dio. Azkenik, gorputzak badu dimentsio erreala ere: organismoa bera. Bihotza taupadaka, giltzurrunak martxan gu ohartu gabe... Hor dago sinboloetatik eta irudietatik at garen haragi pusketak (edo pusketak). Gorputz erreal horri presentziaren misterioa gehitu diezaiokegu: ahotsaren tonua, egindako keinuak, tempusa, gauzak egiten jarritako pasioa... Sinbolizaziotik eta irudietatik kanpoko kontuak.

Horregatik, hitzen, irudien eta organoen arteko hariak asmatu behar izaten dira (aipatutako hiru dimentsioen arteko lokarriak). Gorputza gara, beraz, edo gorputza daukagu? Batzuetan zama baten moduan garraiatzen dugu, beste batzuetan estimulatuegi dago eta ezin da gel-dirik egon... “Biojakituriaren” bonbardaketa eta gorputza “entzuteko” aginduen garaian bizi gara, gorputzaren jaun eta jabe nahi dugu izan, gorputza konkistatu. Hala ere, matxinatu egiten zaigu! Gilles Lipovetsky-ren ustez, egungo hedonismo despolitizatuak gorputzaren oreka eta kontrola du helburu. Baina, esan bezala, noraino menperatu daitezke gorputzak? Ez guttiz, ez erabat. Eta, akaso, zorionez. ●

Aireportuko anekdota bat



EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Askotan nahastu izan nau kanpo begiradak mutiko nerabe batekin, hori ez da berria. Berria ez denez, grazia egitetik gogaitzera pasa izan nau. Berria ez denez, geroz eta erantzun epikoagoak botatzeko gaitasuna garatzen dut, egoeraren gaineko kontrola neureganatuz. Eta kontrola neureganatu dudanez, egoeraz disfrutatzen ikasi dut momentuan eta geroxeago.

Metro eta erdiko *butch*-a izatea auzi konplexua da, espazio eta denbora berean, gauza bat edo beste izan zaitzkeelako inguruan duzun jendearen arabera. Hona azalpena duela bi urte Loiuako aireportuan gertatu zitzaidan

anekdota batekin: lehenengo kontrolean, atzean nuen familia bateko ume batekin nahasi ninduen *seguratak*. Bigarrenean, lehegailuen kontrako “ausazko” bi kontrol (birritan egin behar izan nuen ur botila batekin sartu nintzelako) eta aireportu batean inoiz egin didaten miaketarik bortitzena egin zidaten, aurrean nuen *giri* ilehori txukunari egin ez ziotena.

Umoretik gogoratzen dut istorioa gaitetik pasa gabe zelan normatibitatearen eraginez tratatu bat edo beste jasotzen jarraitzen dugun aireportuan, kalean, supermerkatuan, garraio publikoan edo edozein lekutan. ●

egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

Pilpilean diren gaiez elkarrizketak,
Eli Pagolak gidatuta platoan.

Laborarien esperientziak,
Mattin Jauregik jasoak landatik.

Asteazkenero argia.eus-en eta
plataforma guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

Otsailak 7

**Laranjak, limoiak...
zitriko uztak posible dira
Euskal Herrian?**

Mirene Begiristain eta Leire Ibarretxe
(Biolur)

Otsailak 14

**Erlategiko burrun-burrunaren
barruan**

Mikaela Untsain

Otsailak 21

Hiriak nola elikatu?

Audrey Hoc (Biriaturko proiektua)

Otsailak 28

**Zer da benetako dieta
osasuntsu bat?**

Leire Udabe (Lakari denda)



UKRAINAKO GERRAK BI URTE

Errusiaren eta NATOren arteko gerra Ukrainaren lepotik

Bi urte bete dira Errusiako armadak Ukrainan inbasioa hasi zuela. Egun hori baino lehenago, 2014ko estatu kolpean eta ondoren hasitako gerra zibilean 3.500 zibil inguruk bizitza galdu zuten; horiei gehitu behar zaizkie Nazio Batuen Erakundeak (NBE) azken bi urteotan zenbatu dituen 10.300 zibilen heriotzak. Kontaketa borobiltzeko, fronteko bi aldeetan 2022ko urtarrilaren 31 arte, 14.000 dira erregistratutako zibilen heriotzak. Zaurituak, 30.000 inguru. Militarren heriotzen inguruko datuak ez daude batere garbi, baina litekeena da ehunka mila soldaduk bizitza galdu izana. Desastre humanitarioa da. Saihestu zitekeena.

 ASIER BLAS MENDOZA

Ukrainako soldaduak
Karkhiven.

Gerra hasieratik, Mendebaldeak esan du probokatu gabeko inbasioa dela eta ez duela zerikusirik NATOren zabalkundearekin. Propaganda hori errepikatu zuenetako bat NATOk idazkari orokor Jens Stoltenberg izan zen. Baina 2023ko irailaren 7an Stoltenbergek berak azaldu zigan Vladimir Putinek 2021eko udazkenean itun zirriborro bat aurkeztu ziola NATOri, aliantzak uko egin ziezaion gehiago zabaltzeari. NATOk idazkariaren hitzetan hori Ukraina ez inbaditzeko baldintza zen, halere, harro kontatu zigan ez zutela sinatu.

1990eko hamarkadan Mendebaldeak Moskuri hitza eman zion NATO ez zela ekialderantz zabalduko. Halere, aliantza atlantikoa hamalau herrialdetara zabaldu eta Errusiako mugetara iritsi zen, eta ekialde hartan misilak jarri zituen. Orduko Mosku ahulak irentsi behar izan zuen, baina bazuen muga argi bat: Ukraina eta Georgia. Halere, NATOk 2008an bi herrialdeei agindu zien etorkizunean NATOan sartuko zirela. Arazoa, baina, ukrainarrekin zuten, NATOan integraztearen aldekoak gutxiengo ziren eta aldiz, gehiengo oso zabala neutraltasunaren edo errusiarrek zuzentzen duten Segurtasun Kolektiborako Itunaren Erakundearen integraztearen aldekoa zen.

Errealitate hori eraldatzea 2013ko Maidan-eko mobilizazioen funtzioetako bat izan zen, 2014ko otsailaren 22an Viktor Janukovitx presidente "errusiar zalearen" kontrako estatu kolpearekin batera amaitu zena. Kiev-eko Maidan plazan frankotiratzaille batzuk herritarren eta polizien aurka egin zuten sarraskia erabakigarria izan zen. Baina Mendebaldeak ez zuen interesik izan sarraskiari buruzko ikerketetan, irudietan, autoinkulpazioetan eta epaiketan. Epaia Ukrainako auzitegiek argitaratu zuten 2023ko urriaren 20an eta baieztatu zuten manifestari eta polizia ugari tirokatuak izan zirela Maidaneko manifestariak kontrolatutako Ukraina Hotlearen zeuden frankotiratzaille eskutik.

Estatu kolpearen ostean, Errusiak Krimea anexionatu zuen eta Ukrainako Gobernuak Donbass errebeldearen kontra eraso egiteari ekin zion. Testuinguru horri esker, Stoltenbergek adierazi zuen gisan, 2014tik NATOk aurrekaririk gabeko laguntza militarra eman dio Ukrainari, bere indar armatuak entrenatuta, ekipatuta eta babestuta. Bien bitartean, Donbasseko gerra zibilean Errusiak gutxienez bi momentutan era zuzenagoan

esku hartu zuen mertzenarioen edota mozorroturiko soldaduen bidez. Une horietan Ukrainako armada egoera larrian zegoela Minskeko bake akordioak adostu zituzten. Halere, azken bi urteetan jakin dugu Ukrainak eta Mendebaldeak inoiz ez zutela adostutakoa betetzeko asmorik.

INBASIOETIK BAKE NEGOZIAZIOETARA

Orain inork gutxiak dudan jartzen du inbasioaren bitartez Kremlin-en helburu nagusia ez zela Ukraina osoa hartzea, baizik eta Ukrainako Gobernuak aldatzeko baldintzak sortzea edota Ukrainako Estatua sinatzera behartzea Moskuren interesak zainduko zituen akordio bat. Baina Errusiako Gobernuak oso kalkulu kaskarra egin zuen. Konparaziorako, errusiarrek erabili zituzten soldadu kopuruaren erdia mobilizatu du Israeliek Ukraina baino 13.000 aldiz txikiagoa den lurraldea inbaditzeko. 200.000 bat gizon armaturekin bere helburuak lortuko zituela pentsatu zuen Moskuk, nahiz eta ukrainar armadak errusiar soldaduen kopurua hirukoiztu edo laukoizten zuen.

Lehenengo unetik Ukrainako Gobernuak eta armadak borrokarako prestutasuna eta determinazioa erakutsi zituzten. Kremlin-en kalkulu estrategikoei huts egin zuten, ez zegoen errendizio masiborik, ezta gobernu dimisiorik edota estatu kolperik ere. Inbasioaren lehen hilabeteen errusiarrek oinarrizko helburu operazional batzuk lortu zituzten, baina soldaduen eta materialen galera oso altua zen.

Bi herrialdeetako gobernuak pizgarri asko zuten bake agertokia erdiesteko. Israelgo lehen ministro ohi Naftali Bennett-ek azaldu zuen gerraren hasieran izandako negoziazioetan bitartekaritza lana egin zuela Israeliek, eta bi aldeek gauzak bide onean jartzeko borondatea zutela. Oleksi Arestovitx-ek, Volodimir Zelenskiren aholkulari ohiak eta 2022ko udaberriko bake elkarrizketetan Ukrainaren ordezkartzako kideak, azaldu du orduan adostutakoa Kieventzat oso ona zela. Ukrainak lurralde batasuna berreskuratuko zuen Krimea kenduta, eta hamabost urteko epea finkatuko zen bere estatusa eztabaidatzeko. Hori dena Ukraina NATOan ez sartzearen truke. Arestovitxek aitortu zuen ukrainarrek xanpain botila bat ireki zutela hori entzutean. Hori hainbat iturrik berretsi dute, besteak beste, negoziaketetan parte hartu zuen ukrainar diplomatiko Oleksandr Chalji-k eta Vladimir Putinek berak, elkarrizketa eta adierazpen batzuetan.

Baina, Zelenskiren zalea den *Ukrainska Pravda* hedabidearen arabera, AEBek eta Erresuma Batuak Ukrainako Gobernuak behartu zuten negoziazioa bertan behera uztera. Antzeko kontakizuna egin zuten bitartekariak, lehen aipaturiko Bennettek, Gerhard Schröder-ek eta bake elkarrizketen anfitrioiak izan zen Turkiako Kanpo Harremanetarako ministro Mevlut Cavusoglu-k.

Elkarrizketetan parte hartu zuen Zelenskiren alderdiko lider David Arakhamia-k azaldu zuen Errusia prest zegoela



Errusiaren aldeko indarrak Mariupolen.

C. KONDAROV/REUTERS

gerra amaitzeko Ukrainaren neutraltasunaren truke. Halaber, baieztatu zuen Mendebaldeko herrialdeek dena zekitelake bake elkarriketei buruz eta Zelenskiri esan ziotela ez sinatzeko bake akordioarik. Ildo horretan erantsi zuen, *Ukrainska Pravda*k aurretik azaldu bezala, Boris Johnson lehen ministro britainiarrak Kievera 2022ko apirilaren 9an egin zuen bisitan borrokan jarraitzeko esan ziela ukrainarrei. Egun berean Europar Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkarik Josep Borrellak ondokoa adierazi zuen: "Gerra hau gudu-zelaian irabaziko da".

Ekaina bitartean negoziazioak berreskuratzeko saiakerak izan ziren, baina denek egin zuten huts, Mendebaldeak behin eta berriro Zelenskiri esaten ziolako ez zela bakerako unea, baizik eta gerrarakoa. Trukean, antza, EBko kide izateko hautagaitza lortu zuen Zelenskik.

Une horretatik aurrera Mendebaldeak Ukraina armatu, entrenatu, gidatu, mertzenariok bidali, inteligentzia militar guztia bere zerbitzura jarri eta estatua ekonomikoki sostengatzen du. Izan ere, Ukraina NATOren zerbitzura gerra egiten ari dela behin eta berriro gogo-

ratu digute Mendebaldeko eta Ukrainako politikariek, eta funtsean horixe da daukaguna: Errusiaren eta NATOren arteko gerra bat, Ukraina erabilita. Josep Borrellak zera azaldu zuen: "Ukraina laguntzen ez badugu, egun gutxi barru eroriko da", eta beraz, "ezin da pertsonen, ospitaleen, eskolen eta hirien ongizatea handitu, diru hori Ukrainak behar duela". Ez iezadazue esan Ukrainako gerra gelditzeko, Ukraina laguntzeari uzten badiot, gerra amaitu egingo baita, zalantzarik gabe".

GERRAREN AURPEGI DESBERDINAK

2022 urte gogorra izan zen Errusiarentzat. Iraila giltzarri izan zen. Ukrainak Kharkiveko fronteko kontraeraso arrakastatsua burutu eta 12.000 kilometro koadro berreskuratu zituen. Moskuk erreserbisten mobilizazio partziala eta Ukrainako lau eskualderen anexioa iragarri zituen. Erantzuna izan zen Errusiatik Alemaniara gasa eramaten duten North Stream gasbideen kontrako eraso ezaguna. Seymour Hersh kazetari prestigiotsuaren arabera, AEBek buruturiko atentatua izan zen.

2023an frontea gelditu xamar zegoen, Errusia bere akatsetatik ikasi eta iraupen luzeko gerra konbentzional baterako prestatzen hasi zen. Irabazteko gakoak ondokoak izango ziren: armada bakoitzaren gaitasun industrial eta giza baliabideak. Bi faktore horietan Errusiaren nagusitasuna argia zen. NATOk ezin zuen, eta gaur egun ere ezin du, Ukrainarentzat behar adina armamentu ekoiztu. Halere, Mendebaldeko komunikabideek eta kantzilertzek esan ziguten armada Errusiara edozein unetan kolapsatuko zela: ez zutela arma hornidurarik, armamenturako txipak garbigailuetatik ateratzen zituztela eta Errusiako erregimen politikoaren kolapsoa iristear zegoela.

Frontean, Errusiak aspalditik du mar-txan jarrita Ukrainaren eta NATOren gaitasun militarrek higitzeko estrategia. Horregatik, 2023ko udan ukrainar armada ahulduta zegoen eta horren ondorioz, porrot egin zuen bere kontraerasoak. Ahulezia konpentsatzeko, eraso militar eta terroristak Errusiaren lurraldeetan ugaltu zituen Kiekek.

2024an Ukrainaren egoera okerragoa da. Orain, Errusiak frontean azkarrago egiten du aurrera. Kiekek soldadu gu-



V. GHIRDA/AP

Bucha hirian ehunka zibil hil zituzten 2022an.



Vladimir Putin, Krimearen anexionaren urteurrena ospatzeko ekitaldi batean, 2022an. M. KLIMENTYEV/AFP



Volodymyr Zelenskyy, NATOko buruzagiek 2023ko uztailan Lituaniako egindako bilkuran. Y. HERMAN/REUTERS

txi du eta jendea errekrutatzeke arazo handiak dauzka. Halere, aurten ez dirudi bake negoziaketarik izango denik. Alde batetik, Mendebaldeko agintariek ez dute ahuldadetik negoziatu nahi, ekainean Europako Parlamenturako hauteskundeak eta azaroan AEBetakoak izango dituztela eta, bestalde, Errusia orain sentitzen da erosoan, armada eta ekonomia gerrarako egokituta dituela.

Moskuk 2023ko erdialdera arte pairatu zuen ezegonkortasun politiko eta militarra atzean geratu da. Inork gutxi gogoratzen ditu inbasioa hasi arte Errusian martxan zeuden gobernuaren kontrako protesta sozioekonomiko eta politiko jendetsuak edo 2023ko San Juan egunean Wagner talde paramilitarrak egin zuen altxamendu armatua Kremlin-en kontra. Martxoan egingo diren hauteskunde presidentzialetan litekeena da Putinek inoizko babes handienetakoa lortzea. Erregimen politikoa geroz eta autoritarioagoa da, baina aldi berean, bere babesak kohesionatzen ari dira, kanpo etsai bat eragiten duten gertetan gertatu ohi den bezala. Errusiarren artean inbasioak ez zuen gogo handirik pizten eta kritikoak ez ziren gutxi. Baina gerra hasi zenean NATOk bere jo puntuan ez zuen Errusiar Federazioa soilik jarri, baizik eta Errusiako herritar guztiak. Errusiarren aurkako jazarpena ekonomiara, kulturara, hezkuntzara eta kirolera zabaldu zuten. Ondoren, NATOren inplikazio belikoa indartu ahala, "kanpo etsai baten aurkako borroka"-ren irudia sendotu da errusiarren artean. Horrek erregimena kohesionatu du eta diskurtso nazionalistak indartu. Horri guztiari erantsi behar zaio gerra

2024an Ukrainaren egoera okerragoa da. Orain, Errusiak frontearen azkarrago egiten du aurrera. Kievek soldadu gutxi du eta jendea errekrutatzeke arazo handiak dauzka

ekonomikoan Errusia garaipen handiak lortzen ari dela. Bere ekonomiak Mendebaldekoak baino hazkunde handiagoa du. Etxean gerra ekonomiarako neokenesiar politika publikoak aplikatzen ari dira, aberastasunaren banaketa bultzatu eta zerbitzu publikoetan inbertsioa handituta.

Errusiaren kontrako gerra ekonomikoak, ordea, asko kaltetu du Europako Batasuna. AEBek Ukrainako 2014ko krisiarekin lortu zutena areagotu eta sendotu egin da: Berlin-Mosku-Beijing ardatz ekonomikoak suntsitu eta EB Washingtonen interesen zerbitzura jartzea. Ondorio ekonomiko lazarriak eragin ditu, Josep Borrell-ek garbi azaldu zuenez: "Errusiatik datorren energia merkean oinarritu da gure oparotasuna. Errusiako gasa eta Txinako merkatu

handirako sarbidea: esportazioetarako eta inportazioetarako, transferentzia teknologikoetarako, inbertsioetarako (eta) produktu merkeak izateko".

Eta hori bukatu egin da. Orain, errusiar gasaren ordez, AEBek Europari berea askoz garestiago saltzen diote eta energiaren prezioaren gorakada indartu. Ondorioz, inflazioa harrotuta dago, euroa hondoratuta eta europar industriak lehiakortasuna galdu du nazioarteko merkatuetan. Enpresa askorentzat irtenbidea da Europa utzi eta AEBetara joatea, han energiaren prezioa hiru edo lau aldiz merkeagoa izateaz gain, dirulaguntzak dauzkatelako. Hori guztia gutxi balitz, NATOko herrialdeak beraien gastu militarren igoera garrantzitsuak egiten ari dira AEBetako industria militarren mesedetan.

Ukrainan egoera okerragoa da. Gerra sortzen duen suntsiketarekin batera, ekonomia koman dago. Herrialdea bizi da Mendebaldetik datozen transferentzia ekonomikoetatik eta kasu askotan diru hori era ustelean kudeatzen dute. Gainera, herrialdearen neokolonizazio ekonomikoak sekulako abiadura hartu du. Lurrak eta baliabideak Mendebaldeko enpresen mesedetan pribatizatzen ari diren bitartean, herritarrei politika neoliberalak inposatzen dizkiete. Ildo horretan, Ukrainaren berreraikuntzarako funtsaren arduradun izendatu dituzte AEBetako BlackRock munduko inbertsio funts handiena eta JPMorgan Chase bankua.

Ukrainar autoritarismoa biguna da. Alderdiak eta hedabideak debekatzen ditu, aurkariak jazartzen ditu eta eskuin-mutur nazionalistaren ideologia



A. STEPANOV/AFP

Ukrainiako armadako soldadu bat tiro egiten Donetsk-eko mugan.

eta posizioak elikatzen ditu. Baina biguna da, soberania eta babes herritar faltagatik. Horregatik, Volodimir Zelenskik hauteskunde presidentzialak ez egitea eta agintaritza militar osoa aldatzea erabaki du.

ETORKIZUNEN PERSPEKTIBAK

Sergei Shoigu-k, Errusiako Defentsa ministroak, 2025ean gerraren amaiera irits daitekeela iradoki du. Aurten Ukrainak gutxi-asko eutsiko balu, 2025ean indar berrituta kontraerasoa prestatuko luke edozein negoziazio agertokira indartsuago iristeko; baina oso ahuldu-ta iristen bada, negoziazioa zailduko litzateke. Zelenskik oso zaila du ukrainar biztanleei saltzea bete edota sinatu nahi izan ez dituzten bake akordioek aurreikusten zutena baino lurralde askoz gutxiago izango dutela. NATOk ere ez luke nahiko horrelako porrot ageriko bat eta hor hazi egin dira azken asteetan sumatzen diren arrisku berriak.

Ukraina asko ahuldu baino lehena-goa mahai gainean dagoen aukeretako

Errusia orain sentitzen da erosoen, armada eta ekonomia gerrarako egokituta dituela

bat da NATOren inplikazio zuzenagoa, agian kideren baten zuzeneko parte hartzearekin Ukrainari gerran laguntzeko. Horretarako bi baldintza landu behar dira. Lehenengoa, Europako herritarrak psikologikoki prestatzea horrelako gerra baterako eta bigarrena da *casus belli* bat probokatu edo fabrikatzea.

Orain hilabete batzuk kolapsatzera omen zihoan Errusia, sekulako galerekin Ukrainako %20 okupatzeko gai besterik izan ez dena. Orain benetako arriskua omen da aliantza atlantikoarentzat. Ale-

maniako Defentsa ministroak esan du Errusiak bost urte barru NATOri eraso egin diezaikeela. Europako zenbait herrialdek antzeko adierazpenak egin dituzte, besteak beste, Suediak, Finlandiak, Poloniak eta Baltikoko herrialdeek, beren herritarrei balizko gerra baterako prestatu behar direla adierazi diete. Rob Bauer-ek, NATOk Batzorde Militarreko buruak, argi utzi du: "Errusiaren aurkako gerrarako prest egon behar du Mendebaldeak". Eta Stoltenbergekek epe luzeko gatazka iragarri du: "Errusiaren aurkako hamarkadetako borrokarako prestatu behar dugu".

Egoera kezkarria da munduan dau-den gatazkek konektatzen ari direlako. Israelek Gazako genozidioa hasi bezain laster, Hegoalde Globalak era zakarra-goan ikusi du ezaguna zuen Mendebaldearen moral bikoitza. Ildo horretan, Stoltenbergekek harro esaten duenean Putinek Ukrainako inbasioarekin lortu duena aliantzaren hedapena eta kohe-sioa handitzea dela, ahaztu egiten du errealitatea konplikatua dela.



O. MARQUES / GETTY IMAGES

Poloniako soldaduak NATOren ikurra eskuetan.

Ispilu-joko batean bezala, NATO inartu den bezala, Errusiak harremanak estutu ditu Txinarekin, Iranekin eta Hegoalde Globaleko beste herrialde batzuekin. Horrela, blokerik ez zegoen tokian, orain badago, nahiz eta Mendebaldekoa bezain definituta eta kohesionatuta ez egon, polo anitzeko estrategia batetik mehatxu eta etsai komun baten aurrean artikulatzen di-

ren interes nazionalen konbergentzia delako.

Blokeak ez zeuden lekuetan sortzeak edo daudenak kohesionatzeak baldintzak sortzen ditu munduko gatazkak lotzeko eta hirugarren mundu gerrara iristeko. Martxan dauden gerra guztiek besteengandik bereizten dituzten ezauzgarri eta logika propioak dituzte. Baina gatazka horien artean nazioarteko po-

tentzien interesak lerrotatzen hasten direnean gerra globalera hurbiltzen gara. Nancy Pelosi Alderdi Demokratiko buruzagi historikoaren adierazpenak logika horretan daude: "Gazan sufrimendua geldiarazten saiatu behar dugu, baina su-etenera deitzea Putin jaunaren mezua da. Ez nahastu, horrek zerikusi zuzena du berak ikusi nahiko lukeenarekin". ●

40. URTEARRAZIA

Arabako BERTSOLARI TXAPELKETA

2024

1. Finalerdia

OTSAILAK 24, Larunbata 17:30ean

ARAMAIO, Kultur etxean

Ekaitz Samsaniego Curiet

Eli Zabala Barquin

Itzi Vilaspre Simon

Manex Agiere Arriolabengoa

Peru Abarrategi Sarriena

Unai Anda Dúlka

Gai-emaila: Etsaun Otaño Zankungi
www.bertsozale.eus - www.bertsosarrerak.eus

Hitanoak generoan eragiten dituen zapalkuntzak, gogoetagai

Zergatik ari dira gizonak, lagun talde batean, euren artean hitanoa erabiltzen, gizonak ez diren bestelako gorputz eta identitateak ere zirkulu horretan baldin badaude? Zer esan nahi du horrek? Zer sentazio sortzen dira? Eta horri aurre egiteko, emakumeek ere hitanoa erabiltzea al da soluzioa? Nola? Gizon ez direnentzat, baliagarria izan daiteke noka forma berreskuratzea? Lagunarteko hizkuntza edukitzeko tresna?

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  ARNAITZ RUBIO / ARGIA CC BY SA

Estua da oso hitanoaren eta maskulinitatearen arteko harremana, baina ez horregatik asko ikertua. Eta hitanoaz, oro har, gauza bera esan daiteke. Badira ikerketak, ikertzaileak, baita tokian tokiko egitasmoak ere. Jende askoren ekiteari esker, hainbat kezka ari dira plaza hartzen. Ezbairik gabe, hitanoaren erabilera presente samar dagoen euskararen eremuetan ari dira gertatzen, gehienbat. Urola Kosta (Gipuzkoa) da horietako eskualde bat. Azpeitia, Azkoitia, Orío, Zarautz, Zumaia... Biztanle asko dituzten herriak dira eta eguneroko elkarrizketetan presentzia handia du hitanoak. Belarria jartzea besterik ez dago ohartzeko, esaterako mutil gaztetxoek koskortzen direnetik zeinen lasai eta erraz darabilten hitanoa.

Bereziki, gizonen arteko forma gailentzen da: toka. Noka, berriz, tokaren aldean, dezente gehiago ahuldu da azken hamarkadetan. Zerikusi zuzena du horrek gizonen plaza publikoan duten –eta historian izan duten– espazio eta protagonismoarekin. Baita ere, jakina, hitanoak duen konnotazioarekin: landa-

eremuarekin lotura, gutxiespena, zikina... Baina euskara kalean indartzearekin batera, maskulinitate hegemonikoak beregain hartua du hitanoa. Ikerketa askok diote, baita erreportajeaz aztertuko ditugunek ere, jendea galdetuta ohikoa dela, betiere hitanoa erabiltzen den lekuetan, gizonak hitanoz entzutea, eta hori zerbait *guay* eta *indartsu* gisa hautematen dela. Aldiz, hitanoa darabilten emakumeen kasuan, historikoki, posizio sozialak eraginda, adjektibo zakarragoak gailendu izan dira: *lotsagabe*, *marimutil* eta abarrak.

“Osasuntsu al dago hitanoa zure herrian?”. Ohiko galdera da hitanoaren erabilera buruzko inkestetan. Dese-rosotasuna eragiten dio horrek Gatx Eizagirre (Zarautz, 1990) euskaltegiko irakasleari. Transfeminismoan duen aktibismoak eraman du hizkuntzaren eta generoaren inguruko ikerketa egitera, horretan ari da ikasketa feministetan, eta noka ikastaroa eman berri du Astigarragan (Gipuzkoa). Aipaturiko galderari, galdera egin dio Eizagirrek: “Zer esan nahi du osasuntsu egoteak? Askok hitz egitea? Hitanoa, eta hizkuntza bera, osa-

suntsu egongo da hiztuna eta komunitatea osasuntsu baldin badaude”.

Solaskide duen Beñat Arruti (Zarautz, 1999) ere gaiari bueltaka ari da azken urtean: “Kezka nagusia beti izan da hitanoaren galera, erabilera oso apala eta tokian tokikoa delako. ‘Noka berreskuratatu behar dugu’, esan ohi dugu. Eta bai, horrela da, aintzat hartu behar dugu kopurua, beheranzko joera. Baina era berean, ezinbestean, gogoetatu behar dugu zergatik berreskuratatu behar dugun noka forma”.

Master amaierako lana egin du Arrutik gaiaren inguruan, Urola Kostan zentratuta. 20 eta 36 urte arteko hainbat gazte elkarrizketatu ditu, eta iritzia eman dion talde heterogeneoa biltzea lortu du: trans ez binarioak, gizon eta emakume transak, gizon cis-ak eta queer-ak, besteak beste. Ikerketa oso lokala izanda ere, badu garrantzia inpaktuak: “Euskaraz hitz egiten den lurraldea hartuta, hitanoan hitz egiten den eremuak duen adierazgarritasuna minimoa da, baina Urola Kostaren moduko eremuetan daukan inpaktua oso garrantzitsua da, hemen horrela harremantzen delako jende asko”.

Erreportajearen gehiago murgildu aurretik, gaizki ulertuak saihesteko oharra: bi solaskideak hitano hiztunak dira. Bien artean toka eta noka egiten dute, hitanoaren funtzio sozialean sinesten dutelako. Hausnarketa bultzatu nahi dute, hizkuntzaren -areago kasu honetan, hitanoaren- eta generoaren artean arakatuta. Arruti: "Hitanoa asko hitz egiten den lurraldetan jaio eta hezi garen pertsonak, segur aski ez gara kontziente hitanoaren erabilera normal eta tradizionalak zer dakarren berarekin. Atze-atzean dauzkan biolentziak eta estruktura ikusi behar ditugu".

ZAPALKUNTZA ORO, HIZKUNTZAK MARKATZEN DU

Hitanoa hizkuntza informala baldin bada, eta oro har gizonak baino erabiltzen ez badute -alegia, toka gailentzen bada-, ez da gehiegi pentsatu behar zein gorputz eta identitate geratzen diren informalismo horretatik kanpo.

Hitanoaren eta generoaren inguruko ikerketak egin dituen Onintza Legorbururen hitzak jarri ditu mahai gainean Eizagirrek. ARGIA egin zituen adierazpenak, Onintza Iruretaren erreportajearen: "Señoritismoaren aurkakoa da noka". Eizagirreri iltzatuta geratu zitzaizkion hitzak, eta horregatik, klase zapalkuntzaren kontuei erreparatu die: "Kapitalismoaren baitako lan banaketarekin, zergatik geratu zen noka etxean, eta toka, aldiz, ez? Bistakoa da".

"Botere estrukturalaren isla eta sortaile da hizkuntza", segitu du Eizagirrek, baina aldi berean "disidentziarako tresna" ere izan daitekeela uste du. "Guk, hiztun gisa, agentzia hartzea litzateke onena; eraldatzeko aukera baliatzea, bizitzako esparru guztietan bezala, hizkuntzan eta komunikazioan ere bai". Beste zenbait hari muturren artean, genero birformulaketa eta genero zabalpena planteatu izan du Astigarragan eman zuen noka ikastaroan.

"Bollera ez bitarra naiz, eta noka hiztuna", dio Eizagirrek. Inguruan baditu noka hitz egiten duten bollerak, ez bitarrak, marikak, edota, oro har, generoaren bitartasuna zalantzan jartzen duten feministak: "Bai noka ikastaroetan eta bai topaketa informaletan, momentu horretan bertan bagaude nokaren praktikatik ere bitartasun afera zalantzan jartzen ari garen noka hiztunak".

Ikuspuntu antropologiko eta soziolinguistikotik, hiztuna subjektu aldakor gisa ulertu behar dela uste du, testuinguru eta ibilbide oparoa duena. Hau da, hiztun



APUNTE ZEHATZAK

Erruduntasun sentsazioa

Hitanoa erabiltzen bada, oro har, toka erabiltzen da. Horren aurrean erruduntasun sentsazioa ere existitzen dela kontatu du Eizagirrek, noka ikastaroan kide izan dituen emakumeen hitzak solasaldira ekarrita. “Gizonek mantendu egin dute, baina guk, emakumeok, ez”.

Gazteei kargu hartzea

“Gazteek hitanoz gaizki hitz egiten dutela esaten da. Jakina: ez badute jaso, nola egingo dute? Hasteko, gazte askok jaso dutena toka izan da. Mutilek, oro har. Jaso eta eman egiten dute gainera. Nesken kasuan, jaso, segur aski, ez dute ezer jaso. Eman ere ez dute egingo, beraietara egiten ez bazaie”.



batek, bere bizitzako uneren batean, edo askotan, hizkuntza errepertorioa, errejistroa, dialektoa, aldaera edo hizkuntza bera aldatzen ditu. “Bizitzako beste aldatetekin lotzeko aukera ematen digute hizkuntza mudantzek”. Horregatik dio interesgarria izan daitekeela nokarako mudantza linguistikoa.

ETA ZERGATIK EZ ZUKA, DENENTZAT BERDIN BADA?

“Joera horrantz doa...”, esan du Arrutik galdera planteatutakoan. Baina hitanoaren ahal den neurriko erabilera defendatu du; hasteko, euskararen ondarea izan badelako. Funtzio sozialari erreparatu dio, ordea. Izan ere, hainbatetan azpimarratu den moduan, lagunarteagokoa den hizkuntzaren forma da hitanoa, gertutasuna eta konfiantza transmititzen duena. Azken horretan ñabardura egin du: “Beti

“Bitartasuna zalantzan jartzen ez bada, problematikoa litzateke denok hitanoan hitz egitea”

Gatx Eizagirre

esan izan da bi solaskideren arteko konfiantza erakusten duela hitanoak, baina nik neuk, ziurrenik, pareko kafetegiri horretara sartu eta zerbitzari gizonezkoarekin egingo banu topo, hikaz egingo nioke. Baina ez dut ezagutzen, ez dakit nor den. Beraz, ez da konfiantza kontu bat soilik”. Eta hori esanda, erreferentzia egin dio

Lisiperen bildumako *Trikua esnatu da* liburuari. Arrutik aipatzen duen kasua adibide bat besterik ez da Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek liburuan diotena azaltzeko: “Gizentasunean elkar ezagutzen dira bi gizon horiek”. Ahaidetasunaz mintzo dira. Ez dela “kontzienteki egiten” dio Arrutik, baizik eta “inertziak”.

Zuka formari lotuta, Eizagirrek azpimarratu nahi izan du ez dela egia hainbetsutan errepikatu den esamoldea, euskarak ez daukala generorik. “Hori esan ohi da gramatika aldetik ez delako bereizten genero maskulinoa eta femeninoa, baina lexikoan badaude ahaidetasunari loturiko hitzak. Iruditzen zait gramatikan eta lexikoan generoa azaltzea edo ez azaltzea tresna izan daitekeela, bi kasutan, betiere gure alde erabiltzen badugu”.

Hitanoaz hitz egitean bitartasuna aipatzen da sarri, lehen unetik, eta ber-

Proposamen berria: **xoka**

Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimenduaren Nafarroako taldeak proposamen berria jarri du mahai gainean: xoka. Hitano ez-bitarra sortzeko proposamena da. Sinpleki esanda, tokaren k edo nokaren n beharrean, ez-bitarra izateko guztiek x erabiltzea. Alegia: “Hasi gaituk” edo “hasi gaitun” erabili ordez, “hasi gaitux” esatea.

Iazko azaroan *Xoka. Jite disidenteak* jardunaldiak egin zituzten Iruñean, euskara eta genero disidentzia uztartzeko asmoz. Bertan sakonago azaldu zuten xokarako propio sorturiko taula, baina aurrez, Euska-

lerria Irratia-n Reyes Ilintxetari hainbat gako eman zizkioten Kepa Yecora eta Oskar Sada mugimenduko kideek. “Premia” sentitzen zuten hizkuntza ez-bitar informala sortzeko, “hutsunea” sumatzen zutelako, hain justu ere tokaren maskulino eta nokaren feminitatik aldentzeko: “Ez toka, ez noka; guk, xoka”.

Haiek asmatutako hitza da, hizkuntzak “aurrera” egin behar duelako: “Hiztunok garatzen dugu hizkuntza, sortzen ditugu hitz berriak, eta urratsa eman dugu”. Areagotu nahi dute queer euskaldunen komunitatea, bereziki fokua Nafarroa Garaian jarrita.

dintasunaren mesedetan zuka formak gailentzeak berdintasun hori ekar dezakeela ez dute espresuki egoki jo solaskideek. Araza sakonagoa dela diote: jestuak, gorputz jarrerak eta hizketako erak eta gaiak seinlatu dituzte. Eizagirre: “Zuka ari garenean ere bitartasuna hor dago. Eta gizonak gizonekin toka egin gabe ere, bitartasun bat markatzen da. Toka erabilia, jakina, askoz ere nabarmenago geratzen da”.

Arrutik, haria, generoa performatiboa den ideiarekin lotu du: “Hizkuntza batean generoa hain markaturik egon ala ez, beti gertatuko den zerbait da, generoa estrukturala delako. Hitanoak esplizitatu egiten du genero ezberdintasuna. Hitanoaren bidez markatzen da pareko pertsona nola ulertzen duzun eta nola jokatzeko duzun berarekiko. Baina marka ipintzeaz gain, hierarkizata dago boterea bera. Berezkoa duen botere asimetricoa ezartzen da, sinbolikoa bada ere, maskulinitatearen hegemonia ezartzen duena”.

Adibide sinple eta ulerterraz batera jo du Eizagirrek. Aipatu du Azpeitian eginko ikerketa bateko galdera eta erantzunei

“Hizkuntza batek generoa gehiago ala gutxiago markatu arren, beti hor egongo da; estrukturala da”

Beñat Arruti

erreparatzen ari zela begietara nola egin zion salto hain asumitua dagoen erantzun batek. Mutil gazte bati zuzentzen zitzaion galdera, ea norekin hitz egiten zuen hika. Haren erantzuna: “Mundu guztiarekin”. Jakina, tokaz mintzo zen; beraz, gizonak soilik zituen buruan.

HITZ EGIN DEZAGUN HONTAZ

Euskara hizkuntza zapaldua eta jazarria dela ez da dudarik, baina erromantizismo ariketak nagusitzen dira euskara “salbatzeko” printzipioarekin bat. Euskaraz eta euskararen bueltan egiten den gauza oro, abiapuntutik, aberasgarritzat hautematen da; funtsean, atzean dagoelako

autentikoa denaren ideia, herri zapaldu baten historia, identitatea, ondarea, *berreskuratzea, indartzea...* Solaskideak bat etorri dira kontzeptu horiekin, euskara hori guztia dela, baina ikuspuntu soziolinguistikotik aztertzeko beta ere behar dela nabarmendu dute: “Edozein modutan hizkuntza eta hitanoa salbatu behar dela dirudi”. Salbatzearen alde, jakina, baina kritikotasun eta gogoeta propioa eginda.

“Hitanoaren biziberritzea eta ikerkuntzan dabilzan beste batzuek esan duten ildotik, tresna gisa planteatu behar da nokaren erabilera, gizon ez diren guztientzat”, esan du Eizagirrek. Bestela, haren aburuz, “besterik gabe berreskuratuta”, arazoak erroan jarraituko luke: “Bitartasuna zalantzan jartzten ez bada, problematikoa litzateke denok hitanoan hitz egitea”.

Nondik hasi? Gakoa izan daiteke pareko pertsonari galdetzea nola zuzentzea nahi duen, gerta daiteke-eta norbaiti toka hitz egitea gizon gisa irakurri duelako, edo alderantziz. “Entzute-adoste ariketa bat” interesgarritzat jo dute; ahal denean, adosterik ez baitago beti. ●

**EZ DA SAGARDOA,
ZU ZARA.**

HARTU ARDURA



Astigarragako Udala

EKOLOGIAK HIL DU BASERRIA



JOSEBE BLANCO



VINCENT MICHEL / OUEST-FRANCE

Nekazarien traktore uholdeek hartu dituzte Europako errepideak. Protestan dira. Diru kontuaz gain –sektoreko prekaritatearen adierazgarri betierekoa–, Frantziako Estatuko bi sindikatuk –FNSEA eta Laborari Gazteak– badituzte bestelako eskaerak.

Osasuna eta ingurumena babesteko Europar Batasunak eta estatu frantzesak ezarritako arauak zalantzan ezartzen dituzte. Biren berri eman dute komunikabideek: pestizidak erabiltzeko baime naren luzamendua eta ur kontsumoari muga ez ezartzeko eskatzen dute.

Paris inguruko protestetako iritzien bilduma jasotzen duen artikuluari kazetariak hurrengo izenburua eman dio: “Ekologiak nekazaritza hiltzen du”. Halaxe dio frutagintzan aritzen den batek.

Izan ere, nekazaritza –hortaz, janaria izango dugun ziurtasuna– azkenetan badago, ez da garapen eredu honek ekarri digun klima aldaketagatik eta kutsaduragatik izango, ezta horrek lurrarekin eta animaliekin egiten den lanari ezartzen dizkion zailtasun gehigarriengatik ere –lehortegatik, bioaniztasun galereagatik, uholdeengatik, suteengatik,

izurriteengatik gertatzen diren uzten galeragatik–.

Baserria kinkan bada, ez da haragi eta esne industriek ur eta lur kontsumo desproporzionatua dutelako edota sistema industrial horrek ura eta lurraren kutsadura berezko duelako. Hori ere ez.

Nekazaritza eta abeltzaintza ez daude zenbaki gorritan erregai fosilekiko menpekoak direlako; izan gasolioaren kontsumo zuzenagatik, izan ongarrri eta pestiziden erabilereagatik.

Baserririk mundua krisi sakonean bada, horrek ez du zerikusirik merkatuaren sistemak ezarritako lan-moldeekin, inondik inora. Ezta lurra, animaliak eta pertsonak ustiatzearekin ere. Ezta janariarekin negoziarioa egiteko eta espekulatzeko batzuek antolatuta duten mekanismoekin ere. Ezta planeta eta pertsonen osasunaren ginetik errentagarritasuna jartzearekin ere.

Nekazaritza eta abeltzaintza ez daude desagertzeaz haziak, lurra, ura, ekoizpena eta jakien banaketa gutxiaren eskuetan daudelako. Ezta politika publikoek eredu globalizatu eta oligarka hori bultzatzen dutelako ere. Are gutxiago, erakunde publikoetatik diru-laguntzen banaketan

eredu industrial eta intentsiboak babesten direlako, edota latifundismoa bultzatzen delako. Horregatik ere ez.

Baserritarrak ez gaude hiltzorian administrazioetik burokrazia, betebeharez eta apartako zailtasunetaz itotzen gaituztelako. Ezta politika publikoek tamaina handiko ustiatzeak bultzatzen dituztelako ere. Lurrarekin aspaldi batean dagoen espekulazioak ez du inongo eraginik gazteak baserrian instalatzeko ezinarekin, ezta zorpetze mailarekin ere.

Baserririk desagertzen ez du inongo loturarik nekazarien lurren okupazio industrial edo turistikoarekin. Nekazarien lurak bestelako azpiegituz –errepideak, zentral eoliko edota fotovoltaiakoak, meategiak, AHT...– betetzeak ez du kalterik egiten. Merkataritza guneei eta hipermerkatuei ematen zaizkien eraguztietako abantailarekin ere, arazorik ez.

Tira, azkenean, ekologisten erruz desagertuko da baserririk mundua. Eta anbi-ziorik ez duten baserritar txiki horien erruz. Ahaztu gabe herrietako azokek eta denda txikiek suntsiketari egindako ekarpena. Eta eredu agroekologikoa babesten duten herritar eta baserritarrak.

Argi dago, ekologiak hil du baserria. ●

A ZE FAUNA!

KOLOREAK IRAGARKI



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

IÑAKI MEZQUITA ARANBURU
ARANZADIKO KIDEA

Naturan koloreek mezuak zabal-tzen dituzte. Batzuetan, mezu zuzena ematen dute, beste batzuetan, ordea, mezu horiek ikuslea engainatzea dute helburu. Jakina, izaki txikien artean ere badira ez direnaren itxura eman nahi dutenak. Arriskua adierazteko garaian lau dira Naturak aukeratu dituen kolorazioak: gorria, beltza, horia eta laranja. Gizakiok izan ezik bizidun guztiek ulertzen dute horietako kolorazio bat edo gehiagoko izakiak arriskutsuak izan daitezkeela. Egia esan, gizakiok ere kolorazio horiek kontutan hartu ditugu mezu bisualak emateko garaian: semaforoak dira horren adibide garbia. Dena den, Natura jakintsua da eta baliabide hori inongo arriskurik ez duten izaki batzuei ere oparitu die, biziraupen luzeagoa izan dezaten: kolorazio aposematikoa deitzen diogu horri. Horixe da bada, zimitza ikusgarri honen ezaugarrietako bat. Hala ere, molestatur gero edo arriskua

somatzen duenean, bere gorputzean badiu usain txarra isurtzen duten guruin batzuk. Ez azken urteotan etorri berria dugun zimitz gogaikarri horrena bezain usain nazkagarria, baina tira, berari bali dio arerioak uxatzeko.

Zimitz bitxi hau Europan bizi da, eta garai batean bertako espezie baten bi azpiespezie zirenak (*Graphosoma lineatum* espeziearen *G. l. lineatum* eta *G. l. italicum* azpiespezieak) gaur egun bereizi egin dira, bi espezie ezberdin izendatzen dira. Bi espezie horiek hanken kolorazioaren bitartez bereizten dira begi-bistaz: *G. italicum*-en hankek zati gorriak dituzte; *Graphosoma lineatum*-en hankak, ordea, erabat beltzak dira. Pentatomidae familiakoa da *tifosi rosso-nero* baten itxurako intsektu polit hau. Familia horren izenak adierazten du bere kideen antenek bost zati dituztela. *Graphosoma* bero zalea da, eta nahiago izaten ditu hegoaldera kokatuta dauden belardi eta inguruak. Hala ere, bestelako

leketan ere sarritan topatu daiteke.

Metamorfosi sinplea beteta garatzen da. Hau da, bere bizi-zikloak hiru fase betetzen ditu, hurrenez hurren: arrautza, ninfa eta heldua. Arrautzak landareetan jartzen ditu emeak, eta aste pare bat behar izaten dute barrutik ninfak atera arte. Kolorazio gorri-beltz ikusgarri hori ez du hartzen heldutasunera ailegatu arte, ninfa izan bitartean kolorazio apalagoa, marroixka/arrea izaten baitu. Ninfek bost aldiz aldatzen dute azala heldutasunera ailegatu ahal izateko. Apirila aldera agertzen dira intsektu heldu hegalaria.

Landareen izerdiz elikatzen bada ere, ez du kalte nabarmenik egiten landare-dian, ez baitu multzo handietan elkartzeko joerarik.

Intsektu hau zurrupatzailea da, baina ez du ziztatzeko erabili daitekeen organo-zurrupatzailerik, beraz, lasai egon eta gozatu bere jardunaz, hegan alde egiten ez duen bitartean! ●

ZIMITZA

Graphosoma italicum

TALDEA: Ornogabea / Intsektua / Hemiptera / Pentatomidae.

NEURRIA: 8-12 mm.

NON BIZI DA? Europako hegoaldean.

ZER JATEN DU? Landare batzuen izerdia (azenarioa, mihilua...).

BABESTUTA DAGO? Europan ez dago babestua.

AKAZIA, INURRIA ETA SABANAKO MUSIKA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Science aldizkariak ekarri du urtarrean. Ikerlari talde batek hone-lako izenarekin argitaratu du bere lanaren emaitza: *Inurri eta landareen mutualismoaren hausturak lehoien eta haien harrapakin nagusien arteko elkarrekintzak eratzen ditu*. Kenia erdialdeko Laikipia eskualdean egin dute ikerketa. “Arantza txistularia” esaten dioten akaziaren (*Vachellia drepanolobium* edo *Acacia drepanolobium*) eta bertako inurri batzuen arteko mutualismoa ikertu dute. Akazia jende gehienak bezala, arantza handiak ditu, hostoak eta kimu berri xamurrak jango lizkiokeen edozein belarjalaren ezpainak urratu eta hortzak uxatzeko. Lan hori inurriak osatzen du. Jirafek eta batez ere elefanteek jaten dute arantza txistularia, eta inurria zuhaitzean bizi bada, hostoa jatera datorrenari ezpainetan eta muturrean erasotzen dio. Trukean arantza txistulariak inurriak aterpetzeko “domezio” deituriko zaku itxurako egitura bereziak sortzen ditu arantzen oinetan. Horietan sartu-aterarako bi txulo ditu eta haizea dabilenean txistu berezia egiten dute, hortik landarearen izena: arantza txistularia. Horra mutualismoa, elkarren onura sortu eta landu dute.

Baina Maurizio uhartetik ekarritako beste inurri handiago bat arantza txistulariaren inurri lagunari eraso, jan eta lekua kentzen eta ordezkatzeko ari da. Inurri horrek baina ez du zuhaitz txistulariaren lagun izan nahi eta hura bere babesle gudarosterik gabe geratzen ari da. Ondorioz, elefanteek jan egiten dute, eta makalduta baita eraitsi ere. Arantza txistulari gutxiago dago orain hango paisaian; baso sarri edo tapitu samarra zena baso irekia da orain eta ikusgai-tasuna aldatu egin da. Bertako lehoiek



Inurri batek, erreazio kate luze bat dela medio, Afrikako sabana bezalako ekosistema konplexu bat desitxuratu eta berritxuratu du. Argazkian "arantza txistularia" esaten dioten akazia, sabanan gutxitu dena.

zebra dute berezko harrapakin nagusia. Basoa argitzearekin, ordea, zebrek errazago ikusten dituzte lehoi ehiztariak eta ihesari ematen diote eta ezin dituzte harrapatu. Lehoiek bere ehiza estrategia aldatu behar izan dute. Orain bufaloak harrapatzen dituzte. Zailagoa da lehoientzako bufaloa lurrera botatzea, baina abantaila handi bat dute, bufaloak ez du iheserako grinarik, ez behintzat zebrek dutena adinakorik.

Inurri inbaditzaile batek, beste inurri bat bazkatzen du, arantza txistu-

laria babesik gabe uzten, elefanteen bazka handitzen da, zebrek ederki zaintzen dituzte lehoiak, eta lehoia, zebra arin xamurren okelaren dasta fina ahaztu, eta bufalo mantzo makalak jatera jarri behar izan da. Inurri batek, erreazio kate luze bat dela medio, Afrikako sabana bezalako ekosistema konplexu bat desitxuratu eta berritxuratu du. Tartean inurri-arantza txistularia eman-hartua suntsituta eta sabana hori musika txistukari dotorerik gabe utzita. ●

GARROKO ETXALDEA

HERRIKO ETXEAK BULTZATUTAKO PROIEKTUA, LABORANTZA BIOLOGIKOAN ERREFERENTE



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2011n abiatu zuten Lekorneko Garroko Etxaldean laborantza biologikoko proiektua: “Lurrak Herriko Etxearenak ziren, eta bertako eta Herri Elkar-goko hautetsiek sortu zuten proiektua”, azaldu du Argitxu Ithourria kideak. Laborantza biologikoa bultzatzeko helburuz abiatu zuten, eta herriko eta hurbileko 85 bat bazkide dira egun etxaldea kudeatzen duen kooperatibako kide. Egunerokotasunean, bost lagun ari dira lanean. Barazkiak ekoizti eta hurbilean saltzen dituzte, familia, jantoki eta jatetxeei. Herriko Etxearekin egina duten hitzarmenaren bidez, herriaren lurra erabiltzeko aukera dute laborariek.

SASOIKO BARATZEKARIAK

40 baratze-kari inguru ekoizten dituzte gaur egun Garroko Etxaldean, kanpoko baratzeetan eta negutegietan: “Negutegiak ez dira berotuak, dena den”, adierazi du ekoizleak. 9 hektareako lursaila ustiatzen dute eredu biologikoan. Baratzeaz gain, 2018an fruta-arbola eremu bat ere landatu zuten etxaldean, sagar eta udareak batik bat. Eta 2020an, baratzerako



landare txikiak ekoizteari ekin zioten, autonomia garatzeko asmoz: “Lehenago, hemengo landare ekoizle batek egiten zizkigun, baina hori bukatu zen, eta pentsatu genuen geu hastea gure landare tipien egiten”. Haien artean ez ezik, inguruko beste sei etxalderentzat ere ekoizten dituzte landareak egun.

ZUZENKO SALMENTA ETA BARAZKI MAKINA AUTOMATIKOAK

Garroko Etxaldeko kideek zuzenean saltzen dituzte haien barazkiak, azoken eta

saskien bidez, baina baita etxaldean bertan martxan duten baratze-kari banaketa tresna automatikoaren bidez ere. “Frantzian aski garatuta dago salmenta modu hori: makina bat da, kutxa batzuekin, eta kontsumitzaileak erosi nahi dituen barazkiak hautatzen ditu, txartelarekin ordaintzen du eta kutxak irekitzen dira”, azaldu du. Bestetik, duela urte pare bat sortu zuten Iparlab banaketa proiektuaren bidez ere saltzen diete produktua kantinei eta beste-lako jantokiei.

Atzera begira jarrita, proiektuaren balorazio positiboa egin du Ithourriak: “Hemen ere badira erosketak egitera superrera doazenak, baina, orokorrean, bertakoa eta biologikoa erosteko ohitura ontsa sartuta dago jendeen bizian”. Baina, laborarien lanbideari dagokionez, kezka sumatzen zaio Ithourriari: “Gure lanbidea geroz eta zailagoa da: klima aldatzen ari da, eritasun gehiago daude, idorte gehiago... gauza bera ekoizteko diru gehiago behar da egun, eta, aurrera begira, uste dut teknikoago bilakatuko dela laborantza”. ●

“Gure energia-iturria ona bada, kalitatezkoa, ekologikoa, gure errendimendua hobea izango da.

—
PAULA REMÍREZ
Taekwondolaria eta irakaslea, IRUÑEA

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!

cpaien.org
navarraecologica.org

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“Momentu honetan, lana daukadalako, diru pixka bat inbertitu ahal dudalako; ARGIAren etikarekin errepresentatuta sentitzen naizelako eta euskaraz informatzeko. Errazten nau nire euskararen maila hobetzea ere bai”.

Ortuellatik Saioak

“Kalitatezko kazetaritza egiten duelako”.

Basauritik Maria Belenek

ASTEKARIA



Argi-kontrako argazkiak bukatu dira

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Dena bukatzen da, irakurle. Ezkondutakoan erositako etxetresnak, bizi osorako irauten zuten horiek, jada ez dira existitzen. Tira, bizi osorako ezkontzak ere ez. Gaur egun garbigailuak irauten du hamabi urte, hozkailuak hamar eta ezkontzak lau. Obsoleszentzia programatuak. Panorama honen aurrean, esan beharrik ez dago astekari bateko atal bat ez dela betiko. *Argi- kontra* bukatu da. Ia hozkailu baten zahartzaroraino helduta.


Elkarrizketa luzeentzat badago espazioa ARGIA n. Beti egon izan da. Pertsona bat hartu eta honetaz eta hartaz hitz egiteko tartea. Erritmo biziagoko elkarrizketei leku egitera iritsi zen *Argi- kontra*. Galdera-erantzun azkarrak. Galdera asko eta erantzun laburrak,

gai zehatz bati lotuta. *Kontrapuntua* ere izan zitekeen izena, aldizkariaren erritmoari erreferentzian. Sarri ahalegindu naiz irudikatzen kafe baten bueltako eskuz banakako pilota partida hori. Galdera ezker gantxoz eta besteak erantzun, galdera bi paretarekin eta jaso berriz ere, sendo. Baina gero pentsatu izan dut lan handia izango zutela elkarrizketari idatziz forma hori ematen, ez baitzen beti entrebista azkarra izango; tokatuko baitziren hizketaldi pausatuagoak eta luzeak ere, eta hori *Argi- kontra*-ko estiloko galdera-erantzun azkarretara egokitzeko orrazi eta guraizeak txukun erabiltzea bai iruditzen zaidala artea.

2015eko azaroaren 15eko zenbakian aurkitu genuen sail berria. Aritz

Galarraga izan zen estreinakoa idatzi zuena, baina berarekin batean ezagutu genituen sinadura gehiago ere: Jenofa Berhokoirigoin, Jabi Zabala, Arantza Santesteban, Unai Brea edo Amaia Zabala; eta ondoren etorri ziren Saioa Baleztena, Ander Perez, Aitziber Zapirain, Marijo Deogracias, Leire Regadas, Izar Mendiguren eta Olaia L. Garaialde. *Komunitatea* izeneko atal honetan eman izan dugu, urteotan zehar, aldaketa edo fitxaje berri zenbaiten albistea.

Niri neuri izugarri gustatzen zaizkit estilo horretako elkarrizketak eta pena handiz jaso dut albistea. Urte hauetan jende eta gai interesgarri asko ezagutzen lagundu didazuen kazetari horiei gutziei, milesker. ●



Ogi-apurrak Afrika espoliatuarentzat



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Ghana, 1823. Ashanti Inperioaren eta britainiarren arteko lehen gerra hasi zen. Guztira lau gerra izan ziren bien artean, eta gatazka 1901 arte luzatu zen. Lehenago, europarrek herrialdeko Urrezko Kosta kontrolatzen zuten. Baina 1807ko esklabotzaren abolizioaren ondorioz, kostaldeko negozioak gainbehera egin zuen eta ashanti etniako kideek barnealdeko erresuma kostalderantz hedatzeko baliatu nahi izan zuten. Azkenean, britainiarrek irabazi zuten gatazka, eta Ghana haien protektoratu izango zen independentzia lortu arte (1957).

Gatazkan zehar, britainiarrek Ashanti Inperioaren arte eta kultur ondarea espoliatzeko aprobeztatu zuten, Afrikako eta oro har Britainiar Inperioko beste toki askotan egin bezala. Orain, ashanti erregearen gortetik lapurtutako 32 pieza itzuliko ditu Ghanara: urrezko hainbat intsignia, eraztun bat, pipa bat, txano zeremonial bat... Horietatik 17 Victoria & Albert Museoarenak dira eta beste 15ak Britainiar Museoarenak. Baina itzulera hori baldintza berezietan egingo da. Batetik, pieza kopurua oso txikia da eta, bestetik, piezak ez dira behin betiko Ghanan geratuko: hiru urteko mailegutzan itzuliko dira, gehienez ere beste hiru urtez luzatu daitezkeen kontratuaren bidez. Gainera, piezak ez dira Ghanako Gobernuaren eskutan utziko, gaur egun funtzio zeremonialak besterik betetzen ez dituen Otumfo Osei Tutu II.a ashanti erregearen eskutan baizik.

Ghanako Kultura ministroaren aholkulari Nana Oforiatta Ayim-ek adierazi du, pieza horiek “nazioaren arimaren parte” direla eta mailegutza “abiapuntu ona” dela. Baina Ghanan bertan eta Afrikako beste hainbat tokitan –esaterako, Beningo Brontzeak itzularazteko hamarkada luzez borrokan ari den Nigerian– denek ez dute iritzi bera, eta askok uste dute mailegutza onartzea pieza horiek Erresuma Batuen jabetzakoak direla aitortzea dela.



BRITAINIAR MUSEOEA

Ashanti erresumako gortean erabiltzen zuten txano zeremoniala, britainiar museoeek Ghanari mailegutzan utziko dizkieten 32 piezetako bat.

ESPOLIATUTAKO “PARTEKATZEA”

Britainiarren adierazpenek afrikar askoren kezka areagotu besterik ez dute egin. Tristam Hunt Victoria & Albert museoko zuzendariak espoliatutako ondarea duten Europako beste museoak lasaitu nahi izan ditu, mailegutza kontratu horrek ondarea jatorrira itzultzeko aterik ez duela zabalduko ziurtatuta. Gainera, itzuliko dituzten pieza bakan horiek kondizio berezietan espoliatu zituztela azaldu du Hunt, gerran arpilatu zituztelako: “Museoek gerran lortutako edo kanpaina militarretan arpilatutako objektuak baldin baditugu, gure erantzukizuna da objektu horiek jatorrizko herrialdeekin modu bidezkoagoan partekatze moduez pentsatzea”.

Batetik, partekatzeaz hitz egitean, behin betiko itzulerari ateak ixten dizkio. Bestetik, bere ustez aztertu beharko lirakeen espoliatze kasuak asko mugatzen ditu; espoliatze asko “legezkoak” izan ziren, hau da, garaian garaiko le-


geak hautsi gabe egin ziren, baina beti herrialde menderatzaile eta menderatuen artean, botere harreman desorekatuan. Finean, kasu “gatazkatsu” gutxi batzuei erantzunda, beste kasu gehienek zilegatasuna indartu nahi dute.

Horrez gain, espoliatutakoa itzultzeko eztabaida auzi mediatiko jakinetan zentratu ohi da, esaterako, Britainiar Museoan dauden Partenoiko marmoletan edo Berlingo Museoan dagoen Nefertitiren bustoan. Hamarkada luzez trabatuta egon diren kasu horiek jatorrizko herrialdeen alde konponduko balira, beharbada beste espoliatze batzuk modu berean konpontzeko bidea zabaldu lukete. Baina bitartean, pieza “izar” horien itzalean geratzen dira, oihartzunik gabe, presioa egiteko modurik gabe.

Eta, hala, Mendebaldeko museoeek eskaintzen dizkieten ogi-papurak onartzea beste erremediorik ez dute, jakin arren horrek espoliatzaileen jabetza indartu eta betikotzen duela. ●

CHILLIDA IZAN BEHARRAZ

Eduardo Chillidaren jaiotzaren mendeurrenaren kontura, ideologia guztietako hedabideetan hagiografiak izan dira nagusi eta ez da inolako aipamenik egin bere "gaztaro falangista ultra eta erradikalaz".

 HEDOI ETXARTE

2024ko urtarrilaren 10ean 100 urte bete ziren Eduardo Chillida jaio zenetik. 2023ko abenduko Madrilgo, Donostiako eta Baionako prentsak iragarri zuen 2024ko "pertsonaietako" bat izango zela. Profezia autobetea da efemerideena eta, hitzorduari fidel, *Diario Vasco*-k 80 orrialdetik gorako ale berezia ekoiztu zuen urteurrenaren hurrengo larunbaterako –besteak beste, Espainiako Gobernuko presidentearen, Jaurlaritzako lehendakariaren eta Donostiako alkatearen testu banarekin–. Biharamunean, *El País Semanal* argitalpeneko azala eta erreportaje nagusia izan zen, eta *Gara*-ren iganderoko *Zazpika*-k ere hala egin zuen. Baina askoren harridurarako, Donostiako eskultorearen bizitzako bi pasarte nagusi eta ezagun ez ziren hiru pieza luze horietan jaso, ezta bestelako egunkari, aldizkari, irrati eta telebista euskaldun, espainiar eta frantsesetan ere.

2023an 50 urte bete ziren Pablo Neruda hil zenetik. Efemeridearen konтура argitaratutako erreportajeetan, idazlearen lan literarioez eta posizio politikoez gain, ia kazetari guztiek funtsezko bi auzi nabarmendu zituzten: emakume bat bortxatu eta alaba abandonatu zuela.

2023an ere 50 urte bete ziren Pablo Picasso hil zenetik. Nerudaren kasuan bezala, luzera jakin bateko erreportaje guztietan nabarmendu zuten margolari bikain eta nazismoaren eta gerra inperialisten kontrako pertsona engaiatu hura tratatu txarren emaila ere bazela.

AITAREN IZENEAN

2024ko urtarrilaren 6ko *Diario Vasco*-n, 84 orrialdetako kolorezko gehigarriak *Eduardo Chillida 100 urte* titularra zerraman –gazteleraz–. Pedro Sanchezek, Espainiako Gobernuko presidentea (PSOE), idatzi bidez azaldu zuen eskultorearen hasierari buruz beti aipatzen den pasadizo bat: "Eduardo gazteak Madrilgo Arkitektura ikasketak utzi zituen 1942an, Errealak fitxatu zuelako atezain posturako, bere *aita* [horrela zioen, euskaraz], Pedro Chillida, talde txuriurdineko presidente izendatu zuten urtean. Eduardo Chillidaren atezain ibil-

1943an, Gipuzkoako Diputazioak Pedro Chillida (Eduardo Chillidaren aita) omendu zuen domina bitartez, 1936tik 1939ra egin zituen "merituengatik".

Inork ez ditu bere gurasoak aukeratzen eta, beraz, inor ez da epaitu behar bere gurasoek egin dutenarengatik. Hala ere, egia da, bere aitaren zeregin militarrekiko ez zuen distantziarik hartzen Eduardo Chillidak eta, ordea, eskertza handia egin dio jasotako babesagatik

bidea lesio larri batek eraginda amaitu zen; bost ebakuntzen ostean, futbolari izateko ibilbidea utzi behar izan zuen. Guztion fortunarako lan artistikora itzuli zen, eta eskulturan aurkitu zuen haren adierazpide naturala".

Kontakizun hori beti errepikatzen da Chillidaren propagandan. Nahiz eta PSOEko presidente batek jakin beharke lukeen 1942ko Espainiako Bigarren Mailako futbol talde bateko presidente baten ideologia zein zen, Pedro Sanchezek ñabardura hori saihestu egin zuen. Baina nor zen Eduardo Chillidaren aita? Eta nola lortu zuen 1942tik 1945era Errealeko presidentea izatea?

Aita, Pedro Chillida Aramburu, militarra zen 1909az geroztik. 1936ko uztailaren 18ko estatu kolpe faxista Donostian antolatu zuen lau gizonetako bat izan zen. Derecha Vasca (DVA) talde ultrakatolikoko kidea zen, zeina Espainiako Bigarren Errepublika fundatu zenetik erregetzaren itzuleraren alde konspiratzen ibili zen. Pedro Chillida infanteriako kapitaina zen orduan, eta talde paramilitarrak antolatu zituen kolpea gauzatzeko.

Edonola ere, anarkistek zapuztu zuten Donostiako kolpea. Porrota hain izan zen handia, uztailaren 18ko eguerdian, Chillidaren taldea, funtsean DVako eta Renovación Españolako militantez osatua, sakabanatu egin zela eta kideak eguneroko bizitzara itzuli zirela, kolpista gisa ez zitzaten identifikatu. Baina uztailaren 20an, Errepublikarekin leial zirenek Pedro Chillida atxilotu eta Ondarretako kartzelara eraman zuten. Gero, irailaren 9an, *Arantzazu-Mendi* ontzi-kartzelara pasatu zuten giltzaperera, eta bertan egon zen abenduaren 14an Bilboko Karmelako espetxera lekualdatu zuten arte. 1937ko ekainaren 19an, Francoren "armada loriatsuak [...] Bilbo askatu zuen", eta orduan bai, Pedro Chillidak bere burua Donostia eta Burgosko autoritate militar berrien esku utzi zuen. Chillidak gerra bukatu arte eta haraindi jarraitu zuen borrokan kolpistekin.

Errealeko presidente zen bitartean militar kolpista konbentzitua zen oraindik Pedro Chillida. Informazio hori *Hoja matriz de servicio* Espainiako infanteriako armadaren curriculum xehean jaso




eta gordetzen dute gaur egun ere –Segoviako Artxibategi Militarrean irakurgai dago–. *Gorrien* ehiztaria izan zen, 1951n betirako erretiratu arte. Epaile militar izatera ere iritsi zen, eta akusatuek inolako garantiarik ez zuten epaiketetan atxilotuak hilko zituzten ala ez erabaki izan zuen. Egia da, edozer interneten aurkitzen den garaiotan, informazio hori ez dagoela presente, baina badira gaia lantzen duten liburuak: Vicente Talón-en lan monumentalak (*Memoria de la guerra de Euskadi 1936*, Plaza & Janés, 1988), Manuel Chiapusok (*Los anarquistas y la guerra en Euskadi*, Txertoa, 2009) edota Germán Ruiz Llano-ren liburuek (*Militares y Guerra Civil en el País Vasco. Leales, sublevados y geográficos*, Ediciones Beta, 2019) jasotzen dute Donostiako futbol talde nagusiko presidente izan zenaren ofizioa. Garai hartako Espainiako presidente guztiak bezala, Francoren aldeko figura sutsua izan zen.

SEMEAREN IZENEAN


Inork ez ditu bere gurasoak aukeratzeko eta, beraz, inor ez da epaitu behar, inondik ere, bere gurasoek egin dutenagatik. Ez da meritu bat, ezta kontrakoa ere, gure arbasoek egindakoa. Egia da ere, Eduardo Chillidak bere aita *Conversaciones* (eskultorearen alabaren konpilazioa, La Fábrica 2021) lan testamentalean aipatzen duenero ez duela distantziarik hartzen bere aitaren zeregin militarrekiko eta, ordea, eskertza handi bat dagoela bere ibilbide artistikoan jaso zuen babesarengatik.

Eskultorearen bizitzari buruzko laburbilduma guztietan hiru une aipatu ohi dira: bere “konpromiso etikoa”, “estetikoa” eta “konpromiso hiritarra” (Borja Hermoso, *El País Semanal* 2.467, 2024ko urtarrilak 7, 29. orria). Eskultorearen ekoizpenaren errentatik bizi diren oinordekoek ez dute haien propaganda eskultoretara soilik mugatzen; beti aipatzen dute auzi etikoa eta konpromisoa. Hala, besteak beste, aipatu ohi dira 1977an amnistiaren aldeko gestoren logotipoa marraztu zuela eta Juan Carlos I. erregeari gutun bat bidali ziola ondorengo mezu honekin:

“Oraindik kartzelan dauden euskal preso politikoak, gure herriaren gehiengo handi baten aldetik, Estatuaren zapalkuntza onartezinaren aurka borrokatu duten gizon gisa ikusten dira (...) Ustedes garrantzia handikoa litzatekeela Bere Maiestateak euskaldunen begiekin ikustea amnistia osoaren arazoa”.



Pedro Chillidaren ibilbide militarra, *Hoja matriz de servicios* dokumentutik hartua. Urtez urteko laburpena ageri da orrialde horretan.



Ibilbide militarrean izandako goraldia; bereziki, 1936 eta 1937 urteei dagokiena.



Ia hogeita beranduago, 1996an, Chillidak ETari idatzi zion, Iñigo Urkullu lehendakariak gogoratu bezala, ia urtebete bahituta zegoen pertsona baten askatasuna eskatzeko: “Demuestra ezazue ekintza on bat egiteko gai zaretela. Aska ezazue Aldaya, eta lagundu guztiontzako bakea bilatzen”. Urte bat geroago, gauza bera egin zuen Miguel Ángel Blancoren bahitza eta heriotzaren mehatxuarekin: “Zuen jarrerak herri honi eta edozein pertsona zintzori min ematen dio. Aska ezazue Miguel Ángel, eta guztion artean gai izan gaitezten arazoak bakearekin eta elkarrizketarekin konpontzen”.

Edonola ere, bada Eduardo Chillidaren bizitza zeharkatzen duen beste pasadizo bat. Xavier Vallsek –Frantziako Barne ministro sozialista ohi Manuel Vallsen aita margolariak– jaso zuen bere memorietan (*La meva caps de Pandora*, Julià de Jòdar idazlearekin ondutako liburua, Quaderns Crema, 2003) baina inoiz ez da aurreko gertakizunekin batera aipatzen eskultorearen ibilbide politikoa lantzen denean. Pasadizoa Mikel Iturriak zabaldu zuen euskaraz eta gazteleraz *Harrikadak* blogean eta, nahiz eta kontatzen duena larria izan, itzalean gordetzea erabaki dute kultur kazetariak (59-61. orriak):



Pilar Belzunce (Chillidaren emaztea), Pablo Palazuelo eta Eduardo Chillida, 1962an Parisen.

"1949ko ekainaren 26an, [Parisko] Cité Universitairearen ikasturte amaierako *Garde Party* tradizionala ospatu zen. Urtero bezala, hainbat estatutako pabiloietan nork bere bandera altxatu zuen. Gogoan dut igande goiz hura, belardiaren gainean ginen kideetako batzuk eta hai-zetan ikusi genuen, aurrenekoz aspaldi, Espainiako pabiloian 'ikur nazionala'. Oriol Palà sutan jarri zen arrazoiz, baina guk gomendatu genion ez zezala hain altu hitz egin, handik gertu zeudelako Eduardo Chillida eta Pablo Palazuelo. Gugandik aparte ziren eta, pixka bat lehenago, esan zuten Francok ez zituela 'gorri separatista' guztiak garbitu. Arratsaldean festak hasi ziren pabiloietan, eta Espainiakoan Maravall zuzendariak hortxata egin zuen Valentziatik espresuki ekarritako txufa zaku batekin. Halako batean harrabots handia entzun zen,

eta jarraian lehenengo solairuko gela batetik Peres deitzen zen ikasle baten oihuak entzun ziren. Eskerrak Lamote eta Perich doktore altu eta indartsuek saihestu zuten Chillidak azken bultzada ematea Oriol Palàri leihotik botatzeko, ordurako oin bat leiho-hegian zuenean espainiar banderaraino iritsi eta mastatik kentzeko. Palà lurrera itzuli zenean, Chillidak berari ostikoak ematen jarraitzen zuen gorputz osoan. Kide gehiago gerturatu ziren 'Cristo Reyren bi gurutzatu' zorigaiztokoak Maravalltarren pisuan desagertu zirenean, eta babestu zituzten. Heriotzatik bizitzatik baino gertuago, Jordi Anguerak gaua ohean pasa zuen eta nik lurrean egin nuen lo, atea ongi itxita. Oriol Palàri aurpegia hazi zitzaion, hainbeste, begiak desagertu zitzaizkiola. Gelan pasa zuen gaua -ziurrenik hark ere ez du gogoratuko non- Sunyerrenean ala August Puige-

nean. Gertakizuna oso deigarria izan zen Cité Universitairearen baitan eta kolegio askotako ikasleak saiatu ziren Chillida eta Palazuelok ez zezaten alde egin. [...]

Ez genuen ezer jakin luzaroan bi erasotzaileei buruz, baina bietakoren batek Galerie Maeghten erakusketa zuenero, handik gutxira joaten nintzen eta bisita liburua sinatzean, Parisen ohi denez, nire izenaren azpian jartzen nuen: 'Oraindik gogoan daukat 1949ko *Garden Party*'. Ez zuen deustarako balio, baina asebetetzen ninduen, beste askok ez bezala, memoria galdu ez izanak".

Liburuan, aurrerago, historiaren jarraipena kontatzen du Xavier Vallsek, handik 30 urtera, Chillidak amnistia- ren aldeko ikurra egin zuen garaian, 1977an:

* * *

"Martxoan hasieran Madrileran joan ginen, Pierrette eta Théorekin, Mignonitarrek eskaintzen zuten afarira joateko Galería Theoren hamargarren urteurrena zelako. Afalostean, denak joaten ziren mahaiz mahai eta Jaime del Valle-Inclán eta biok Pepe Caballero margolariaren eta José María Moreno Galván kritikoa-renean. Haiekin trago bat edaten genuen bitartean Eduardo Chillida eta bere andrean gerturatu ziren. Pepe Caballerok elkar aurkeztu nahi gintuen eta Jaimek esan zion bazekiela nortzuk ziren Valls-tarreatatik. Nik gehitu nuen beti gogoratzen nituela Parisko Cité Universitari-reko Espainiako pabiloiko gertakizunak 1949ko *Garden Party*-an. Chillidaren emazteak alde egin nahi izan zuen, gu 'edanda' omen geundelako, baina Chillidak esan zuen ez zitzaiola axola gertatutakoa azaltzen banuen. Emazteak jarraitu zuen esaten ni 'mozkorra' nengoela, baina Chillida ez zen mugitu, eta Jaimek -aldentzen zen bitartean- insistitu zuen, dena konta niezaien Moreno Galván eta Pepe Caballerori. Ñabardura guztiekin azaldu nien eraso basatia, eta Eduardo Chillidak entzun zuen, geldi-geldi. Sortu zen isiltasunaren erdian, eskultoreak erantzun zuen 'sentitzen' zuela, baina haren etxeko giroaren eraginpean jokatuz zuela, haren aita militarra zelako. Mahai gainean kolpe bat eman nuen eta esan nion, orduan zeuzkan 26 urterekin nahiko zinikoa zela errua 'aitatxori' egozte, eta, militarren seme guztiek berak bezalako jarrera izan balute, oso espainiar gutxi geratuko lirakeela. Chillidak ez zion entzuteari utzi, baina bitartean haren emazteak besotik tira egiten zion, handik ateratzeko asmoz, esan zidan arte isil nendila behingoz bera Lizarrakoa zelako. Erantzun nion, hain justu, Lizarra zela nik ezagutzen nuen hiri atzerakoienetako eta *fatxenetako* bat, eta hala alde egin zuten gure mahaitik, lotsa-lotsa eginda. Jaimek urrundik begiratzen gintuen, itzuli zen nire aldamenean esertzera, eta ni, gertakizuna hainbeste urtez sabelean eraman eta gero, lasai eta pozik geratu nintzen. Espainiako Kolegioko jende eta egoiliar askok ezagutzen zuten Chillida eta Palazueloren jarrera, baina denek isiltzen zuten". (186-188.or.)

* * *



'Berlin' eskultura, Alemaniako Kantzelaritzaren egoitzaren atarian.

NOBERT NAGEL

ETA IZPIRITU SANTUAREN IZENEAN

Eduardo Chillidaren jaiotzaren kontura hamaika ikerketa eta eztabaida sortzeko aukera izan beharko genuke: kultur politikez edota azken bost hamarkadetan Hego Euskal Herriko erakunde publikoek eskultoretan egin duten gastuaz, esaterako. Ukaezina da, gainera, zenbait artista eta kultur ekimenek 1936ko kolpeari esker elite batzuegan izandako metaketa ekonomikoaren onura izan zutela. Artistak sortuko ziren familiak aberastuko ziren, edota mezenas izango zirenenak, adibidez. Euskal kasuan, bistan da, ez da Chillidarena ikertu beharreko bakarra.


Sarritan aipatzen da Eduardo Chillidak euskal kosta nuklearraren kontrako

logotipoa diseinatu zuela, edota euskal preso politikoen aldekoa. Handik hila-bete gutxira damutu zen gaur egunera arte erabiltzen den irudi hori egiteaz. Bai Chillida, baina baita Pilar Belzunce ere, eskultorearen ondarearen benetako kudeatzailea, beti izan ziren abilak boterean zegoenarekin, boterean zegoena edonor zela. 1950eko hamarkadako botere nazional-katolikoarekin, 60etako frankistarekin, 70etako garai nahasian ere keinuak egin zituzten ezker-eskuin, baina 1980etatik aurrera benetako botere ziren PSOE eta Espainiako erregetzarekin harreman zoragarria izan zuten. Bat egin zuten ere, jakina, EAJ eta Eusko Jaurlaritzarekin, baina nazioartean ere, Europar estrategikoa izan zen Alemania Mendebaldeko sozialdemokraziaren-

gandik gertu egon ziren. Deigarria da eta gida bat merezi du Alemania Federalean Chillidak duen obrak, handi ala txiki botere ekonomiko-politiko non, Chillida bat han: Berlindik Bonnera, Münster, Munich eta Düsseldorf barna.

Egia bada ere prentsak ez dituela halako Chillidaren bizitzako zenbait pasarte jaso nahi izan, 2006an, aurten ere mendeurrena ospatzen duen Nestor Basterretxeak, zera erantzun zion Iruñe Berrori *Berria*-ko elkarriketa luze batean: “Egunen batean *Beste Chillida* idatziko du norbaitek. Besteen gaintetik gailentzeko, edozer gauza egiteko gai zen. Ahalegin biziak egin zituen gu erditik kentzeko. Faxista hutsa zen. Bere aita Molaren gizonetako bat izan zen Gipuzkoan. Jendeak ez zuen benetako Txillida ezagutu, ez daki nolakoa izan zen, edo bai, baina ez dugu memoria historikorik. Pena da, zeren memoriarik gabe ez gara ezer. Memoriarik gabe lehengo faxistak oraingo demokratikak dira”.

Sei urte geroago, egunkari berean, Iruñe Lasari zera esan zion: “Abusu bat iruditzen zait [Chillidalekurena]. Familia negozio familiar bat da eta. Nik hemen sartzeagatik kobratu eta dena poltsikora sartuko banu bezala da. Eta gauzak gaizki daudenean, Jaurlaritzara. Eman diezaietela. (...) Txillidaren aita Molaren Donostiako konfiantzako gizona zen. Mutiko faxista hori iritsi eta abertzale bihurtzen da, tortilla bat balitz bezala. Eta, gainera, bere zorionerako, Jaurlaritzako memeloek sinetsi egiten diote. Manifestazioetan agertzen da... Esan didate zergatik ez naizen manifestazioetara joaten. Ez dut behar manifestazioetara joatea abertzalea naizela esateko!”.



Bai Chillida, baina baita Pilar Belzunce ere, eskultorearen ondarearen benetako kudeatzailea, beti izan ziren abilak boterean zegoenarekin, boterean zegoena edonor zela

Ez da, azken urteotan, *Berria* izan halako baieztapenak jaso dituen egunkari bakarra. 2014ko apirilean Juan Pedro Quiñonero Espainiako *ABC*-n Manuel Vallsen inguruko pieza bat argitaratu zuen, eta tartean hau irakur zitekeen:

“Valls aita aldi batez bizi izan zen Parisko Espainiaren Kolegioan, Hiri Uni-

bertsitaroan. Valls semeak nahi bestetan entzun zuen bere aitak toki hartan bizitakoa, non ‘gerrazibilkeria’ ideologiko bat zen nagusi. Ezaguna da Eduardo Chillidaren historia, bere gaztaro falangista ultra eta erradikala, nola eman zion jipoi bat katalan gazte bati, Valls aitaren laguna zenari eta Pierrette Gargalloren –Pablo Gargallo XX. mende Espainiako eskultore handietako baten alaba eta oinordekoaren– etorkizuneko senarra izango zenari. Valls aita Frantziako hiriburuan ezarri zenean, bere lagunak eta solaskideak –Café

Mabillonon, besteak beste– ‘gerrazibilkeria’ traumatiko horren isla ziren”.

Deigarria da albiste horren sareko kontsulta egitea: *ABC* egunkariak paperen ongi argitaratu zen ‘Chillida’, ‘Chillina’ (sic) gisa jasotzen du; akaso, eskultorearen irudia babesteko asmoz.

Galdera da: zergatik ezabatzen da beti Eduardo Chillidak arrazoi politikoengatik eman zuen jipoi hura? Zergatik ezkututzen da nola lortu zuen Pedro Chillidak Errealeko presidentea izatea, eta horri esker izan zela bere seme Eduardo atezaina? Ze beldur sortzen dute artistaren ondarearen kudeatzaileek? Zergatik dute bere aberastasunaren kudeatzaileek obsesioa Chillida giza eskubideekin eta ezberdinen artekoen elkarriketarekin lotzekoa eta, ordea, beti ahazten dute bere “gaztaro falangista ultra eta erradikala”?

Jarrai dezagun, artearen historialariek esan ohi duten moduan, diruaren arrastoa: biribilguneetan, museoetan eta erakunde boteretsuen lorategietan, Jerusalemendik Gernikara. Galdera bat altzairu nahaspila bakoitzeko. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com



Hitz gezidunak

GALIZIERA MASAILE- KOAREN ONO- MATOPEIA	PERPENDIKU- LAR PLUTO- NIOAREN IKURRA	ZERBAITEN SORTZAILE ARRA			ONOMATO- PEIA KIDEA DENA	LEHIAKETA PERTSO- NAIAREN IZENA	BLINDAJE KALTZIO KARBONATOA
AZERI BIGARREN LETRAREN IZENA	KANPO, LANDA USTEKABEKO ESALDI BITXI	NAHIA, DESIRA EHIZA			LIBURU EUSKARRIA EURI IZOZTUA	HODEIRIK GABEKO ZERU APAIZ NAGUSI JUDUA	JASANGAITZ, GOGOR PUSKA TXIKITAN ZATITU
GARAITZA EZAIN, ITSUSI	ERA HARTAN BERTAN UGAZTUN MOTA	NAFARROAKO URTEGIA IPAZTERKO HONDARTZA	NAFARROAKO HERRIA ESKU ARTEAN DUZUN ASTEKARIA	AUKERA ZUHAITZ MOTA	GAR LETRA IZENA	ROENTGEN ERITREAKO DOMEINUA	ALAI
GALIOAREN IKURRA IZURRI	ATSEGIN EMATEKO UKITZEA JABETASUN ATZIZKIA	GAZTAROAN DAGOENA KRIPTONA- REN IKURRA	EUSPENA AZKEN LETRA	HODEIETATIK ERORTZEN DEN UR			

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	2							7
9						8	4	
	4		1	9			6	5
2		5		1		7	8	4
7			9		2	3		
	6		7		8		2	9
		9					7	8
	5	2					3	1
		4	5		3			2

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Ponpa.
- Bailara, ibar.
- Ondo ulertzen dena.
- Gaia, materia.
- Neba.

EBAZPENAK

- UHAGA
- HARAN
- ARGI
- GAIKI
- ANAI

1	7	4	5	8	3	6	9	2
8	5	2	6	7	9	4	3	1
6	3	9	4	2	1	5	7	8
4	6	3	7	5	8	1	2	9
7	8	1	9	4	2	3	5	6
2	9	5	3	1	6	7	8	4
3	4	8	1	9	7	2	6	5
9	1	7	2	6	5	8	4	3
5	2	6	8	3	4	9	1	7

I	R	I	E	I	Z	A	R	V	N	I	V	I	Z
A	E	S	U	E	I	K	L	U	L	I	D	I	E
R	A	V	Z	G	V	E	D	E	G	L	D	E	H
A	R	V	I	R	R	I	Z	V	A	G	A	R	
A	T	U	H	A	R	Z	V	A	T	R	O	K	
I	X	E	S	U	I	G	I	E	U	E			
V	Z	E	X	E	V	L	H	Z	Z	A	O	M	
Z	A	T	Z	E	N	P	I	P	E	V	A	G	
L	A	T	R	I	L	A	V	A	T	O	B	E	
A	H	Z	O	Z	I	K	I	L	U	K	A	R	
O	K	I	D	E	K	O	V	A	P	L	A	Z	
K	L	Z	E	G	L	Z	E	G	L	Z	E	K	



Futuroa da orain

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 KONOR_PICS

Bartzelonara bisitan, Apolo aretora ekarri naute lagunek. *Sarao* izeneko drag showa omen dagoela eta merezi duela. Ni, itsuitsuan, eraman nazaten utzi dut nire burua, zer espero oso ongi jakin gabe. Ilara luzearen ostean, areto barrura sartu gara. Ekitaldia hasita dago, baina oraindik ere ez dira lehian sartu. Lehian bat da, beraz. Pankarta andana aretoetako palkoan: putofobiaren kontrakoa, *pentsa ezazu espazioa nola erabiltzen duzun* zioen beste batek, edo Terfak ongietorriak ez zirela adierazten duena. Aurkezleek azaldu dute irabaziak Futuroa elkartearendako izanen direla, eta artista guztiei beren zatitxoa emanen dietela, baldintzak duintze aldera.

Banan-banan hasi dira lehiakideak oholtzara ateratzen beren proposamenekin. Batzuk otakuago, beste batzuk dantza emanaldi luze eta zoroekin. Zein baino zein deigarriago. Hala ere, izan dira beste batzuk maila bat gorago. Ikusleek ere txaloz eta hatz lodi eta luzea ka-

raskatzen hala adierazi dute. Euforia travesti drag king kolektiboa izan da sorpresetako bat, artean ikusi gabe nintzen zuzeneko batean gizonak *imitatzen* duen talderik. Palestinako genozidioaren kontrako aldarriak ekarri ditu Balak. Baina guztien gainera, Corason. Zezen-buru, adar kartsu, titi puzgarri eta zerbitzua.

Finalistak aukeratu bitartean, publiko artetik zenbait drag ere ausartu dira, horien kasuan, kafe likore botila lehian. Irabazlea hemen: Alfonbra. Soineko eta metro eta erdiko kapela gorria zeramana. Gonbidatuak ere izan dira. Hor bizi izan dugu, nire ustez, gauaren unerik gorena. Ros Elavy igo da lehenik soineko berde lodiz. Kantuak eztanda egin ahala, Sindicat de llogaters-en (Inkili-noen sindikatua) aldeko soinekoa utzi du agerian. Pankarta gehiago zabaldu dituzte, alokairuak mugatzeko eskatzen dute, eta sindikatuaren eskuorriak hegan ikusi ditugu.

Gauza asko utziko ditut ziur, barkatu, eta beste asko ez nituen harrapatuko.

'SARAO' DRAG SHOWA

NOIZ: otsailaren 3an.

NON: Bartzelonako Apolo aretoan.

Azken ideiei heldu aurretik baina, zorionak irabazleari (Corason zezen queen), irabazle ohiari (Kika super puta), zeina lorez gainezka zegoen hilkutxa batean iritsi baita aretora, eta, zorionak, Futuroa elkarteari. Iluntze ederra. Likorkay-ri aipamen berezia, ez soilik haren soineko droga-poltsaz josiagatik, baizik eta saria banatu aurreko monologoagatik ere.

Sartu aurretik zer aurkitu jakin ez. Amaitu orduko, baina, gauzak argi: *Futuroa* da orain. *Sarao* showa ez da geroz eta gentrifikatuago dagoen hiri baten *pinkwashing* ariketa hutsa. Bollerendako, marikendako, transendako eta artistendako topaleku da. Gorputz ez norbatiboak eta arrazializatuak miresten dituen. Festa bat da, baina edukiz betea: eduki politikoa. Eta ez bereziki hiriaren alkate ohia bertan zelako. Bazterreko jendearen eguneroko arazoei espazio ematen die Futuroak, aurrez aurre begiratzen diena errealitateari eta etsaiari. Eta horiek guztiak deserosotasunetik ospatzeko gai dena. ●



LIBURUA

Etorkizun utopikoen zirrimarrak



ZIRRIBORROAK ETA GERO

Katixa Agirre, Uxue Alberdi, Lucía Baskaran, Harkaitz Cano, Gabriela Damián Miravete, Belén Gopegui, Karmele Jaio, Danele Sarriugarte, Iban Zaldúa eta Patxi Zubizarreta

CONSONNI, 2023

AMAIA ALVAREZ URIA

Dena hasi zen Azalan (egonaldi artistikoetarako espazioan), *Futuribles* saioak antolatu zituztenean. Zenbait ekimenetako ordezkari bildu ziren bertan, bizitza bizigarriago egiteko alternatibekin: Errekaleor, Lumínica ambiental, Karabeleko... Jarraian, idazle batzuk gonbidatu zituzten etorkizuneko aldaketetarako zirriborroak osa zitzaizten. Horrela, 2018tik 2022ra alternatiba bana hartu eta fabula espekulatiboak sortu zituzten.

Testuak eta audioak (gehi proiektuaren inguruko informazioa) *borradores-delfuturo.net* web orrian bildu zituzten. 2023ko Durangoko azokarako ordea, Consonni argitaletxeak liburu formatuan argitaratu zituen. Liburuko hamar narrazioez gain, web orrian hamaikagarrena ere irakur-entzun daiteke, Nerea

Arrienen Badalab laborategiaren fabula.

Espainiako editoreen elkarteak berriki argitaratutakoaren arabera, irakurleen %29,7k euskarri digitaletan irakurtzen du eta %6,9k audioliburuak entzuten ditu (nagusiki 14 eta 45 urte tartekoek). Ni liburu honekin hasi naiz ipuinak entzuten, eta esperientzia bitxia izan da. Idazleak kontatu dit bere narrazioa ahoz, eta jarraian nik irakurri dut idatziz. Probatzea proposatzen dizuet.

Katixa Agirre, Iban Zaldúa, Danele Sarriugarte, Karmele Jaio, Belén Gopegui, Harkaitz Cano, Patxi Zubizarreta, Uxue Alberdi, Lucía Baskaran eta Gabriela Damián dira egileak. Honatx haien alegiatik zenbait esaldi komentatuta.

Sarriugarterenean hasieran “zerk kezkatzen zaituzte hainbeste?” irakur dezakegu. Zientzia-fikzioan edo lite-

ratura espekulatiboan oso oinarritzko abiapuntua da, bilduma honetan argi geratzen dena, adibidez, Zalduaren aipu honetan: “Jendarte-makinartea gauza erlatiboki berria da, historiaren talaia-tik begiratuta, eta bide luzea daukagu aurretik”.

Gopeguirenean eta Damianenean bizimodu aldaketa eta migrazioaren bulkada aipatzen dira: “Ez nintzen hona etorri lasaitasun bila. Etorri nintzen lasaitasuna pribilegiotzat duen bizimoduak min egiten didalako, min egiten digulako” eta “bizitza askerako jomuga berriak bilatzeko plazer hutsa”.

Gehiago ezagutu nahi baduzue, sartu webgunean edo eskuratu liburua, proba ezazue transirakurlea izatea zer den eta ezagutu itzazue alternatibak eta horietan oinarritutako alegiak. ●



MUSIKA

Esan gabe doa: entzun Pelax



PELAX



ENTZUN GABE DOA

PELAX

BALIO DUTE, 2024

XALBA RAMIREZ

Testu hau irakurtzeko denbora soberan ez baduzu, laburtuko dizut: entzun Pelax. Aitzakiarik ez duzu orain, haien diskografia osoa Spotify-ra igo dute lehen aldiz –lehendik Bandcampen zeuden arren–. Eszenako *rara avis*-a izateari utzi, eta peaje komertzial txikia ordainduta, Pelaxtarrak, itxuraz behintzat, kolpe bat emateko prest da-
toz oraingoan.

2019an eman zuten azken kolpea, orain arte guren inork errepikatu ez duen balentriarekin: lau kantaz osatutako disko bikoitza, *ABDE*. Euskal rock progresiboaren gailurra izan zen, inguruko lurretan ere, konparaziorik gabea.

Esan gabe doa-n itzuli dira *Talka da didaktika*-ren estiloko kantuetara. Taldekideen urte gorabeheratsu eta gogorraren ostean, azeleradorea sakatu eta

“hit-en diskoa” hilabete gutxian prestatu eta bi egunetan grabatu zuten. Ohiko moduan, analogikoan grabatu, eta inongo edizio digitalik gabe.

Gitarra eta bateria erritmo konplexuak nahasten dira, melodia errazekin eta letra gordinekin. Jarrera da disko honen abizena, esan gabe doa. Hitzetan Unai Pelayok jarraitu du bere erretorika enigmatiko, sarkastiko eta zorrotza. Kritika guztiak norberari buruz izan daitezkeenaren susmoa ezin gaintetik kendu: “Zure zama ez al da arinegia? Eginda-koak eginda... inpostore dena duzu alde”.

Iker Vazquez bateria joleak errezi-tatuko duen hitz esan ilunean jartzan dira diskoaren zutabeak: “Egun on, izaki moderno berria. Jaikitzea lortu dezun arren, denbora igaro da esna somatzen ez zaitudala. Ikusten zaitut telebistaren

atzean ezkutatu nahian, sintoniaren be-rotasunean. Bizitza ameskizun hutsa dela edo ez dela, fabulazio induzitu bat, blablaba, eta egia lanera joateko urratsak ematea”.

Descartesen jokoa ez dugu zertan onartu, eta harrigarria zait Matrixi bu-ruz hitz egiten duten ehunka influencer, gymbo, ultraliberal eta anarkokapita-listen diskurtsoa. Amets neoliberalak da ameskizunetik ateratzea. Baina ahaztu egiten zaie: gutxi batzuen irtetea. Lehia delako kapitalismoaren oinarria.

Lehiarik gabe, horizontaletik abiatuz, pelaxtarrak eredu ditugu Donostian, eta *euskal* zera honetan. Testua irakurtzeko denbora eman badizu, beste gomendio bat: ikusi Pelax. Euskal Herriko zuzeneko talde onenetarikoa da lerro hauek irakurtzen ari zaren unean behintzat. ●

Blokeak eta mareak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Topikoak barra-barra jaurtitzeko asmatu ditugun gauza ugarien artean, hauteskunde-gaua duzu dudarik gabe bere funtzioa perfektuen betetzen duena. Izan zaitez hauteskunde-gau baten lekuko eta ondorengo guztietan uneoro esan beharrekoa ikasiko duzu: parte-hartze datuak edozein direla ere, balizko emaitzei buruzko hipotesiak egin behar dira lehenbizi; hauteslekuak ixtean ateratzen diren boto-proiektzioekin euforia ala desesperazioa sentitu behar dira ondoren; gero “prudentzial!” oihukatu behar da, gogoraraziz paper guztiak banaka-banaka kontatu arte ezin dela hasi lanperna-jaten. Eta azkenik, estasia: behin betiko emaitzak. Nork irabazi duen ikusita, mundu berri baten hasiera solemneki iragar dezakezu zure sareetan edo, kukuak oker jo badu, kazaharka eta bi puzkarka hasi, gainera ia gauerdia dela konturatu, eta bihar astelehena, hau miseria eta abar.

Oraingoan, gainera, hauteskundeak Galizian tokatu dira, alegia, topiko-sorta oso aberats batekin imajinatu ohi dugun lurraldean. Baldin eta imajinatzen badugu noski, izan ere, Anton Reixak Negu Gorriaken disko hartan esandakoari buelta bat emanaz, galdetu baitaiteke ea benetan galiziarrik existitzen ote den hainbeste indiferentzia mediatikoren atzean. Estereotipoen import-export balantzean, hango kostalde irinezatuak alde batera utzita, Galiziaz hitz egitea kanpora bidaltzen duenaz hitz egitea baita gehienetan: langile asko -igandeko hauteskunde-eroldari erreparatuta, bost lagunetik bat atzerrian bizi da-, itsaskiak, musika zelta, Amancio Ortega; eta Franco, Fraga, Rajoy... Ez pentsa, hala ere, produktu politiko fatxak bakarrik ekoizten dituztenik. Hor daukagu bere Espainiako karrera politikoa kostalde hartatik abiatu zuen Yolanda Diaz ere. Gero bueltatuko gara harengana.



Marta Lois eta Yolanda Diaz, Sumarren Galiziako ekitaldi batean.

Lehenago, emaitzek utzi duten *dejà vu*-aren lokatzetan iraulka ibiliko gara: dagoeneko badabiltza nonahi bi iritzi zirkulatzen, eta dira a) “galiziar mada-rikatuek beti gaizki ematen dute botoa” eta b) “kazikismo handia dago Galizian, izan ere”. Biak ala biak entzuten ditut sarritan eta zer pentsatua ematen didate. Lehenbizikoak, konkretuki, pentsarazten dit ea nor ari den European botoa “ondo” ematen azken urte zorrotadan, nik behintzat ez baitut ikusten. Bigarrenak berriz, urbanita batzuek horrela esplikatzeko dituztela probintziatiko jendearen defektuak. Hiri handietan gauza berdin-berdinak gertatzen direnean -gertatzen baitira, gertatzen direnez- nekaten dira izen sofistikuagoren bat bilatzen, igual ingelesez eta dena.

Eta orain bai, Yolanda Diaz. Zuek gazteak zarete, baina duela hamarkada bat inguru egungo Espainiako presidenteordea dagoeneko ari zen jo-ta-fuego. Urte oso eroak ziren: bazirudien partidu politikoak laster desagertuko zirela, garai likidoek antolakunde ur-

tsuagoak eskatzen zituztela, *#hashtag* bidez masak errazago mobilizatzen zirela herriz herriko militantziarekin baino, politika zaharraz eta *berriaz* hitz egiten zen. Labur: asko flipatzen genuen. Klima hartan plataformak zeuden modan, ez alderdiak. Eta Galiziako plataforma horietako bat Madrilerako tranpolin bihurtu zitzaion Diaz, zeinak garaia alde zuela sentituta, une batean BNGri publikoki eskatu baitzion “bazter batean geratzeko”.

Joan ziren olatu haien aparrak ordea, deus gutxi utzita. Galiziako azken hauteskundeetatik zerbait ikastekotan, horixe: esperimenduak amaituta, batzuek Madrilen lanpostu hobek aurkiturik, bertan geratzen direnen lana estimatzen jarraitzen dutela instituzioetan aldaketa nahi dutenek. Ana Pontonek ez dauka Yolanda Diazen presentzia mediatikorik, baina Galizian boto askoz gehiago bai. Eta blokeak beharbada ez dira cool, baina gutxienez ez dira mareak bezain apetatsuak. ●



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**.

Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

Kaxa barruan aurkituko dituzu:

Karta handiak: Hizkia larriz eta xehez aurkezteko, animalia irudiari eta haren izenari lotuta.

Karta txikiak: Umeek manipulatuz, erabiltzeko eta jolasen bidez hitzak osatzeko.

Laburpen-karta: Kontsultarako, animalia guztien irudiak, izenak, taldeak eta dagozkien hizkiak.

Posterra: Animalia guztien bilduma, dagozkien hizkiekin aldamenean.

Bideoak eta webgunea: Hizkien ahozketasuna lantzeko, karta bakoitzari lotutako ipuin, kanta, olerki, bertso, kontakizun, aho-korapilo, esamolde eta antzerakoien ikus-entzunezkoak webgunean eskuragarri.

Liburuxka eta jolasak: Materialaren argibideak emateaz gain, hainbat jolas proposatzen ditugu karta txikien bidez irakurketa eta idazketa lantzeko. Memoria, azkartasuna, arreta, irudimena, analisia, kooperazioa, hiztegia... garatzeko jolasak.

Egileak: Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzagüena.

Arabako Errioxa

naiz

Eta nire
etiketan
esanda dago
dena.

Nire jatorriaz
hitz egiten duelako,
kalitate berdingabeaz,
esperientziatz, berrikuntzaz.

RIOJA
DENOMINACIÓN DE ORIGEN CALIFICADA
RIOJA ALAVESA



← Saltoki eta
jatetxeetan arretaz
begiratu etiketari;
Arabako Errioxa
jarri behar du.

Euskadi, auzolana



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

hazi